

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko otsailak 19

181. zenb.

Kirolak

**Dorletako  
txirrindularien  
aurkezpena**

**Mozorroa  
prest?**

## Barruti (Garagartza)

**A**ntxineko etxie da Barruti.

Ugaran balladie Mundrauekin bat eiten danien. (1391ien) Barrutiar bat agerketan da ezendaute aneño testuen. Juan Carlos Gerrak bere "Ensayo del padrón de Guipuzkoa"-n bertan 1415,1533 eta 1535 urtietan bizi izendako zenbait pertsonen izenak jasoten ditu.

XVII gixaldixen bertako Landaburu bat Bedoñako Ozaetatar batekin ezkondu zan eta gizaldi honen hasieran Ozaetatar bat Aramaixoko Errastitar batekin.

Gaur egun Agapitto Errasti Ozaeta eta Niebes Errarte Iria bizi die bertan. Lau seme-alaba dittue: Rosa, Karlos, Edurne eta Ixiar.

Agapittok, bertako semiek, basarri lana eta fa-



brikakue bixek ezautu ditu.

Gerra aurretik Kobateko harroixen eta Zerrajeran, eta gerra inguruen 7 urte soldau egon eta gero, Roneon sartu zan lanien bertan jubilau arte.

Garagartzako beste basarri askotan letxe, Barrutikuen be kipula landara hartziek inportantzia haundixe euki dau. Hemengo landariiek tirada haundixe ei euken.


Agapitton esanetan Santa Agedetan hasitte astero-astero Durangoko plazara faten ei zien astoz eta mendiz Arrazolatik zier. Bitorixara eta Eibarrera be faten zien.

# LORAMENDI BIROLAK

**Eskaintza berezia ski ekipo eta osagarrietan!**

**%50  
BEHERAPENAK!**

- TXAMARRAK
- PRAKAK
- APRESKIA
- BOTAK 5.000 PTAtan!




Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jaketxea!



JOSU

TXOKOLATEGIA  
KAFETEGIAElkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso duAldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

## Bakea


**E**z dirudi kolore bakarreko bakerik dagoenik. Antza, ez da uso zuri berbera gora eta behera dabilena. Bakea zer ote den jakin guran hiztegiara jo dut, bake desberdinak bide daude eta. *Burruka nahiz edozein egoera istilutsuren gabezia.* Eta gerra, hiztegiaren arabera zer ote da gerra? *Bi herrialde edo bi talderen arteko burruka armatua edo eta berau bideratzeko modua.* Definizio horien arabera, beraz, Euskal Herrian ez dago bakerik. Eta bakerik ez bada, gerran al gaude? Interpretazioak interpretazio, hiztegiaren arabera baietz uste dut.

Baina ez, ez dut gerraren kontzeptu hori. Gerra Bosniakoa, Somalia, Peru edo Azerbaijanakoa da. Ez da gerrarik baina hildakoak daude, eta zaurituak, presoak, bahituak, tortura.... Gerratan izaten diren elementu horiek hemen ere badauzkagu. Dei diezaiola gerra gura duenak, edo ezeztza dezala. Hori bai, gatazka sakona bizi dugula uka ezina da. Ez dago bakerik.

Eta noiz dago bakea? 1992an munduan 500.000 pertsona hil ziren gerra edo eta gatazka desberdinetan. Goseak egunero

40.000 pertsona hiltzen ditu eta urtean 15 milioi haur hiltzen dira gosez. FAOren arabera (Elikadura eta Nekazaritzako Fondoa), 450 milioi pertsonak desnutritzioa jasaten dute (Munduko Bankuaren arabera 1.000 milioi pertsona dira). Herrialde industrialduetan (munduko populazioaren %25) munduan produzitzen denaren hiru laurdenak kontsumitzen ditugu. Beraz, ia 4.000 milioi pertsona (4.000 milioi pasatxo gara munduan) beste laurdenarekin konformatu behar da. Brasil, Bangladesh edo Mauritania ez dago gerrarik baina -hiztegiak diotenaren aurka- bakerik ere ez. Bakea beste zerbait delakoan nago.

Bizpahiru bider ikusi izan ditut Gestokoak Herriko Plazan. Bakea bakarrik eskatzen dute eta bakea, antza, ETak bere jardura uztean datza. Bakea beste zerbait da, eta bakea erakitzeke elkarri berba egin behar diote gatazkaren aldeek. Bestela, nekez erai-ki daiteke ezer sendorik.

XABIER LETONA,  
"ATAXI"

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40


**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oñden (77 05 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsu eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo



## ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

## URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

## ARRASATE Presseko irakurleei

**D**akizuenez munduan zehar, zuhaitzak direla eta ez direla, arazo handiak sortzen ari dira. Horri irtenbide bat eman nahiean Deba Garaiko Udal Elkar-teak papelaren berziklapenerako kontenedore batzuk ezarri dituzte bailarako kaleetan zehar. Seguru asko konturatuko zineten, beira kontenedoreen ondoan ontzi txuri-urdin batzuk dau dela.

Bertara botatzen ditugun paper, kartoi eta aldameneko departamendura, pilak, denak berziklatuak izango dira. Jakin-minez egongo zaretenez esango dizuegu, azken hiru hilabeteotan 66.700 kilo paper eskuratu direla zuen partaidetza eta laguntzarekin. Ez zaigu bature kostatzen bulegoan, etxean, ikasgelan... beharrezkoak ez ditugun pape-rentzako zakar-ontzi berezi bat edukitzea. Denon onerako izango da. Urtean 700 tonelada jasotzea espero da eta honetarako zuen laguntza behar beharrezkoa zaigu. Anima zaitzete geroaren omenez! Eskerrik asko zuen partaidetzagatik.

**SAN FRANZISKO XABIER  
IKASTOLAKO 8. A-KO  
ETIKAKO IKASLEAK**

## Liburutegiaren mahai banaketa berriarekin kexu gara

**E**z dakigu nori arraio otu ote zitzaion ideia hori, baina gu ez gaude bat ere ados.

Arazoa honako hau da:

Mahai banaketa berri bat izan da, eta ez dugu egokit-zat jotzen. Badakigu, liburutegian 4 mahai daudela (tamaina ezberdinetakoak), horietako bat, egunkari eta aldizkariak irakurtzeko da eta beste guztiak kontsultak egiteko eta ikasteko ziren. Baina duela gutxi (aste pare bat edo hiru) mahai batetan honako karteltxo batekin aurkitu ginen: "Ez jarri hemen zuen apunteak ikasten, liburutegiko liburuak kontsultatzeko da". Hau ez da justua! gure ustez, ez dago banaketa horren beharrik, liburutegi baten funtzioa, kontsultan eta ikasketan datza.

Liburutegia beteta dagoen kasuetan (azterketa garaian, adibidez) aipatutako mahai hori hutsik gelditzeak ez du zentzurik, baina kasu honetan ere, ez digute han jartzen uzten (eta kalera bidaltzen gaituzte).

Besterik gabe, agur bat.

**LIBURUTEGIA ERABILTZEN  
DUTEN 6 IKASLE**

## Zuzenketa

Joan zen asteko media-tekari buruzko albistean (20. orrialdea) Hezibideko ikas-tetxeen artean ez genuen San Viator Ikastola sartu. Barka endredoak.

ARRASTE PRESS

**Edozein keja, ko-mentario, burutazio  
duzula? Idatziguzu  
gutuna eta gusto  
handiz argitaratuko  
dugu. Ez idatzi 20  
lerrotik gora eta  
eman zure izena,  
N.A. eta telefona  
harremanetarako.**

## UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412



OIHALAK

Errekabarren, 20  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 80 90

## Memesa

79 42 22

# Haratuzteetako play-back jaialdira joateko asmorik?



**Paulo Bengoa**  
Eskola Tailerreko ikaslea (22 urte)

Ez, Atxabaltakoa naiz eta normalean ez naiz joaten. Lagunei entzun diet oso ondo dagoela eta barre batzuk egin daitezkeela. Lagunen batauk agertu zirela ere badakit, baina ez dut uste joango naizenik.




**Marilu Diez**  
Mekanografia irakaslea (29 urte)

Ez dut joateko asmorik. Inoiz ere ez naiz egon, baina egia esan aurten kuriositate berezia dut, lagun bat karteletan ikusi dut eta. Beharbada azkenengo momentuan joatea erabakiko dut.



**Imanol Exposito**  
Zerrajerako langilea (40 urte)

Ez, orain arte ez naiz sekula joan. Aurten ez dakit joango naizen. Entzun, asko entzun dut aurreko urteetan oso ondo dagoela, ikusgarria dela, baina ez dakit.



**Frantziska Carmona**  
Etxekoandrea (50 urte)

Zer da hori? Ah! bai, batzutan joan naiz ihauterietara. Asko gustatzen zait eta badut joateko asmoa.



**Osane Mendizabal**  
Estetikako langilea (46 urte)

Asko gustatzen zait, baina ez dut joateko asmorik. Beharbada azken momentuan joatea erabaki dezaket, baina momentuz ez dut asmorik.



**Alfonso Luelmo**  
Okina (35 urte)

Ez naiz sekula egon. Behin joateko gogoia izan nuen ez nuen sarrerarik lortu. Kuriositate handia daukat play-back jaialdi hori zer den ezagutzeko baina ez dut uste joango naizenik.



**Fernanda Lopez Alzeda**  
Jubilatua (80 urte)

Ez, ez naiz hemen egongo eta. Bihar bertan Benidormera noa eta ia urtero otsailean joan eta maiatzean etortzen naiz. Lagunak ere ni bezala zaharrek dira, ez dut ezer entzun diet.



**Oskar Regodesebes**  
Ingeneritza ikaslea (19 urte)

Bai, asmoa badut joateko baina oraindik ez dut sarre-rarik erosi. Aurreko urteetan nire gurasoak egon dira eta oso ondo egoten dela entzun diet.

**ESKAINITZA**  
Betaurrekoak  
2.500 PTatik aurrera!



**GARAGORRI**  
OPTIKOAK

Iturriotz, 29  
Tfnoa: 79 16 98  
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13  
Tfnoa: 76 13 73  
BERGARA

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Anizuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	71 44 52
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio (945) .....	45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udaltzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
<b>Garraloak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterongo liburategia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

<b>Ostirala 19</b>	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Irizar. Erguin.	
<b>Larunbata 20</b>	
Egunez: Amezua. Santamaina.	
Gauetz: Amezua. Santamaina.	
<b>Igandea 21</b>	
Egunez: Ruiz. Maala.	
Gauetz: Ruiz. Maala.	
<b>Astelehena 22</b>	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Morales. San Andres.	
<b>Asteartea 23</b>	
Egunez: Azkoaga. Ferrerias.	
Gauetz: Azkoaga. Ferrerias.	
<b>Asteazkena 24</b>	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Español. Iturriotz.	
<b>Osteguna 25</b>	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Irizar. Erguin.	


**19 OSTIRALA**

**ZINEA**  
"Ellas dan el golpe" (7,10)

**KIROLETAKO JANARIARI BURUZKO HITZALDIA**  
"Kiroletako janaria" izeneko hitzaldia. Emalea: Gorrotxategi medikua. Arratsaldeko 7etan. Aretxabaletako Zaraia zinean.

**MEATZERREKAN BATZAR NAGUSIA**  
Meatzerrekako elkartearen batzar nagusia. Arratsaldeko 7.30etan.

**HARATUZTEAK 93 ARGAZKI RALLYA**  
Harautzteak 93ko argazki rallya. Karretek: Ikatz, Epelde, Laso-Arregin. Sariak: bildumarik onenari 20.000 PTA, argazkirik onenari 15.000 PTA, bigarren bildumarik onenari 10.000 PTA eta bigarren argazkirik onenari 5.000 PTA.



**ARETXAGAZETAREN BATZAR OROKORRA**

Aretxagazeta, atxalbaltaren aldizkariaren batzar orokorra bihar burutuko da, eguerdiko 12etan. 1992ko balatzea, 1993ko ekintzen aurkezpena, aurrekontua, batzordearen berriztapena izango dira tratatuko diren gaiak. Zita Udaletxeko aretoan izango da.

**20 LARUNBATA**

**ZINEA**  
"La muerte os sienta tan bien" (5,7.30,10)

**TAUN TAUN AITA MENNIN**  
Taun Taun taldearen emanaldia. Arratsaldeko 4.30etan. Aita Menniko Aretoko Nagusian. Sarrera: doan.

**ARETXAGAZETAREN BATZARRA**  
Aretxagazeta elkartearen batzar orokorra. Eguerdiko 12etan. Aretxabaletako Udaletxean.

**ARANTXA GARCIA RI OME-NALDIA**  
Ama Arantxa Garcia zenari omenaldia. Meza, arratsaldeko 7etan. La Asuncion ikastetxe-ko aintzinako kapilan.

**ROCK KONTZERTUA**  
"Martxoak 31", "Izurrai" taldeen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Sarrera: 300 PTA. Arrasateko Gaztetxean.

**DORLETA TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENNA**

Dorleta txirrindulari taldearen aurkezpena. Meza Gatza-gan, eguerdiko 12etan. Ondoren, Gure Ametsan taldearen aurkezpena.

**PLAY BACK JAIALDIA**  
Sabado Regular IV Play back jaialdia. Gaueko 10.30etan. Arrasateko Kirolegian.

**ELKARRIAREN AURKEZPEAN ARRASATEN**

**1992ko abenduaren 20an elkarri, elkarrizketa eta akordioa lortzeko giza mugimendua eratu zen Donostian. Ordutik Euskal Herri osora ari dira zabaltzen eta datorren ostegunean, otsailaren 25ean Arrasaten egingo dute aurkezpena. Arratsaldeko 7etan Monterronen izango da eta Jonan Fernandez izango da hizlari.**

**21 IGANDEA**

**ZINEA**  
"La muerte os sienta tan bien" (5,7.30,10)

**ARETXABALETAKO IHAUTERIAK**  
Goizeko 11etan, squash txapelketako finala. Goizeko 12etan Gazteleku txaranga kaleetan. Eguerdiko 2etara kuadrilen desfilea. Arratsaldeko 7etan, 93ko kintoen aurrekua Herriko Plazan eta sari banaketa.

**CORAZON DE ENCINAKO BATZAR OROKORRA**  
Goizeko 10.30etan. Monterronen.

**OROZKO-ITXINA-AREATZA IRTEERA**  
Orozko-Itxina-Areatza irteera. Irteera: goizeko 7etan. Garibaitik. Prezioak: 800 PTA bazkideak, 1100 ez bazkideak, 400 gazteak. Izena emateko: Besaide Elkartean.

**EUSKAL DANTZA IKASTAROA**

Arrasateko Udaleko gazte zerbitzuak dantza ikastaroa antolatu du 15 urtetik gorako gazteei zuzenduta. Martxoaren 5ean hasiko dira klaseak, arratsaldeko 7etatik 8.30etara, eta ekainaren 18an bukatuko dira. Plaza mugatuak direnez, izena lehenbait-lehen ematea komeni da.

**22 ASTELEHENA****ZINEA**

"La muerte os sienta tan bien"  
(7,9.30)

**BERTSO AFARIRAKO SARRERAK**

"Leintz bertsoan" izeneko bertso afarirako sarrerak erosteko azken eguna. Saioa, Apotzagako Auzo Etxean, 27an, arratsaldeko 8.30etan.

**ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA**

Zaldibarko Futbito txapelketako bilera. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

**ESKULANEN ERAKUSKETA**

Maria Jesus Vazquez-en eskulanen erakusketa ikusteko azken eguna. Arrasateko Monterronen.

**"LA MUERTE OS SIEN TA TAN BIEN" ALAI ZINEAN**

**Meryl Streep, Bruce Willis eta Goldie Hawn aktoresek zahartzaroari buruzko komedia interpretatzen dute, beti ere ironia kutsua mantenduz. Robert Zemeckis zuzendariaren estiloari jarraituz, estilo barrokoa da filme honetan nabarriena: angular handiak, pikatu ikusgarrienak, dekoratu gotikoak... Hala ere, ikustea merezi duen filmea dugu, azken finean komedia beltza delako eta gaur egungo arazo bat aztertzeko modu desberdina erakusten duelako.**

**23 ASTEARTEA****ZINEA (Ikuslearen eguna)**

"La muerte os sienta tan bien"  
(7,9.30)

**ARRASATEN HARATUZTEAK 93**

Arratsaldeko 5etatik aurrera, umeentzako sokamuturra, Takolo, Pirrutx et Porrotx pailazoan emanaldia, Erraldoi eta Kilikien kalejira. Gaueko 10etan Inguma taldearen dantzaldia.

**HARATUZTEAK 93 ARRASATEN**

Gaur bertan hasiko dira Arrasateko Haratuzteak. Arratsalderako antolatuta dagoen argazki rallyarekin hasiko dira ekitaldiak. Interesatuok Ikatz, Epelde eta Laso-Arregi dendetan jaso dezakezuen karreteak. Bihar larunbata, Sabado Regular IV Play Back jaialdia izango da Musakolako Kiroldegian. Igandean ere Eguzki taldearekin dantzaldia eta zezen suskoa izango dira. Eta asteartean egun nagusiena izango da. Arratsalde partean umei zuzendutako ekintzak izango dira: sokamuturra, Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoan emanaldia, Auskalo Hankapalo taldearen emanaldia, Erraldoi eta Kilikien kalejira. Gaueko 11etan Herriko Plazan Inguma taldearen dantzaldia izango da eta 11.30etan jaiei amaiera emateko sardinaren hileta egingo da. Era berean, gaueko 12.30etan Herriko Plazan Mozorro lehiaketaren sariak banatuko dira.

**YUGOSLAVIARI BURUZKO HITZALDIA**

Zer gertatzen da Yugoslavian? izeneko hitzaldia. Emalea: Mikel Aramendia. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Komite Internazionalistak antolatuta.

**25 OSTEGUNA****ELKARRIren AURKEZPENA**

ELKARRIren aurkezpena. Hizlaria: Jonan Fernandez. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

**LEINTZ BERTSOTAN BERTSO-SAIOA**

**Datorren otsailaren 27an gaueko 8.30etan Apotzagako Auzo Etxean bertso saioa izango da, bailarako bertsolari gazte eta helduak bilduko dituen. Afarira joateko interesa duzenok, otsailaren 22a baino lehen erosi beharko duzue sarrera. 1.000 PTako prezioa du eta Arrasateko AEDn, Aretxabaletako BEINKEn, Eskoriatzako Zarauztarren eta ohizko banatzaileen bidez eros dezakezue.**

**ESTIBALIZ URIBETXEBERRIAREN PINTURA ERAKUSKETA**

Estibaliz Uribetxeberria arrasatearrak bere kuadroak Gazteizko Sala Pajaritan ditu ikusgai. Pasa den asteartean zabaldu zen erakusketa eta 28ra bitartean egongo da zabalik. Interesatuok Cuchilleria kaleko 22an ikus dezakezue, arratsaldeko 7etatik 9.30etara.

“Zergatik ez du egon behar Hazien-dako Aitorpenean Defentsarako gastuen klausula bat, erlijiozko aukerara egitekoa dagoen moduan? Zergatik gastatu behar dugu armatan gizartearentzat zeregin baliagarriago batetara destina daitekeena? Zergatik askok iritzi hori izan arren, ez du ia inork salatzen?”

**Jose Manuel Corcuera** arrasatearrak 93-2-16

**egin**

“Nik esango nuke euskaldunok etorkizunaren erresposabilitatea geure gain hartu dugula”

**Joxe Mari Mujikak**



“Aktuazioak, edukinen erakusketa eta bide berriak bilatzeko entsaioa dira guretzat; interesgarria da kontzertu bakoitzeko aldaketa estetiko gehituta gure musika erakustea. Egia esan, kasu gehiengan bezala, aurrekontuak mugatzen gaitu”.

**Desvan del Macho** taldekoek

**EL TUBO**

“Hasierako urteetatik errespetuan, tolerantzian, solidaritatean, lagun hurkoarenganako maitasunean hezi ez bagaituzte, gure pertsonalitateak eta baloreak ez diete inola ere gizakiaren eskemei erantzuten. Gizakiaren antzeko irudia izango gara, baina erabat amorfoa. Gizakia ez da jaio bakarrik egiten, egin ere egiten da.

Horregatik, aurrera egin beharra daukagu, ez bakarrik bergizarteratzeko bidean gaizkilea berriz ere delinkuentzian eror ez dadin behar adina garantiarekin gizarteratzeko programa eta neurriak ezarriz, baizik eta bereziki, heziketan daukagu aurreratu beharra”.

**Nekane Iglesias**ek 93-2-16

**EL DIARIO VASCO**

## Zer da zuretzat Haratuzteetako play-back jaialdia?


**L**an handia duen ekintza, baina era berean, pozgarria. Lehen bilera udako oporren aurretik egiten dugu eta bueltatutakoan berriro, gauzak apur bat lotzeko. Kontuan hartu behar da jaialdian jende desberdin askok hartzen duela parte, herriko kuadrila eta talde desberdinetakoak; beraz, denboraz ibili beharra izaten dugu.

Jendea elkartzeko oso esperientzia polita da. Play-back-ean parte hartzen duen jende gehiena elkarteetatik kanpo dago, kuadrila edo pertsona mailan hartzen du parte eta hainbeste jende


elkarlanean ikusteak poz handia ematen du. Aurten 60ren bat lagun izango dira eskenategi gainean, 19 aktuazio egiteko.

Jaialdirako gonbidapena zabala izaten da, lehen bilerarako kuadrilen artean zabaltzen da, baina kasu askotan jendearen atzetik ibili behar izan du. Talde bakoitzak bere entsaioak egiten ditu eta jaialdia baino bi hilabete lehenago guztion arteko entsaioak hasten ditugu, astean bi bider. Aktuazioen ordena erabakitzeke, tresneria beharrei begiratu zaie, aktuazio batzuk eskenategia ia osorik aldatzea eskatzen dute, beste batzuk ez, batzuk orkestra behar dute... ordena gauza horien arabera erabakitzen da. Azkenean, aktuazio batzuk primeran iritetan dute, beste batzuk ez hain ondo, baina guztiak ilusioz eginda.


Sarrerak salgai jarri bezain pronto saltzen dira eta horrek asko esan nahi du jaialdi honen alde. Aurten, 1.500 PTAtan salduko zirela zabaldu zen, baina ez da egia, ez dugu preziorik jaso eta.



**Jose Ramon Arkauz**  
SUDCeko lehendakaria




Iturriotz, 7  
ARRASATE  
Tefnoa: 790467



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

### Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.




**“Bezeroaren telefonoa”**  
**901- 20 20 20**

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.





**AEKn matrikulaldia eta Korrika**

Erdu-AEK Euskaltegian, euskara ikasi edo hobetzeko, hogeitamar laguneko eman dute izena otsaileko matrikulaldian. Aipatutako lagunetatik, hogei erdi-mailako taldeetan sartu dira eta gainontzeko hamarrek EGA talde bat osatu da.

Matrikulaldia alde batera, aurtengo Korrika antolatzeko lehen bilera burutu zen Udaletxean. Lehen bilera honetan, guztira 20 talderen ordezkariak bildu ziren: Scout-ak, Goikobalu, AED, dantzariak, Al-Andalus.... Bileran Korrika Batzordea sortu zen, asteroko lan-dinamika hartuz, bilerak astelehenero egin eta lanak banatzeko.

Korrika Iruñean hasiko da martxoaren 26an eta Arrasateetik apirilaren 1ean pasatuko da, gutxi gorabehera goizeko 11ak aldera eta Oñatitik bueltan.

**Arrasate Herri Irratian**

Herri Irratiko "Krisialditik etorkizunari begira" saioaren barruan, joan den larunbatean. Xabier Zubizarreta Alkateak, Roberto Maiztegi eta Josemari Velez de Mendizabalek hartu zuten parte. Irratsaioak, gutxi gorabehera ordubeteko iraupena izan zuen, eta denbora tarte horretan, Arrasate eta krisiari buruz hitz egiteaz gain, entzuleen galderei erantzun behar izan zieten.



**Kontzentrazioa Zerrajera aurrean**

Pasa den ostiralean asanblada egin ondoren, Zerrajerako berrogeiren bat langilek lantegirako pasabidea itxi zuten. Langileek, ekintza honen bidez, Korporazioa eta bere presidentea aberasten ari diren bitartean, Zerrajera desagertzeko zorian dagoela adierazi nahi izan zuten. Lantegirako pasabidea ordu-erdiz itxita eduki ondoren, bukatu egin zen langileen ekintza.

**Gaztetxeko bidaiarik ez sagardotegira**

Gaztetxekoez, joan den astebururako bidaiaria antolatuta zeukaten sagardotegi batetara, baina izena jende gutxik eman zuenez, azken orduan suspenditu egin behar izan zuten.

Sagardotegirako bidaiarik ez, baina "The Jokers" taldearen kontzertua bai burutu zela aurrez pentsatuta zegoen bezala. Aipatutako taldearen kontzertuak ez zuen jende gehiegi erakartzetik lortu, 100 pertsona inguru, baina beroa eta kalitate handikoa izan zen; Ñako Goñi armonikajotzailearen show-aren eraginez, batez ere.

**Euskal Eskola Berriaren alde Bilbora**

Milaka lagun bildu ziren Bilbon larunbat arratsaldean Euskal Eskola Berriaren aldeko manifestazioan, irakaskuntza munduan orain arte egin den manifestaziorik handienera. Milaka lagun artean Arrasateko jendea ere bazen, autoz joandakoez aparte, bertan hiru autobus betetzea lortu baitzen.

**Sta. Ageda koruak milioiaren inguruan**

Oraindik 20en bat enpresa dirua emateko dauden unean, Santa Agedako koruek batutako

diru kopurua 805.000 PTAKoa da, baina milioi bat inguru jasotzeko esperantza dago. Jakina denez, koruak batutako dirua Caritas-i ematen zaio gero berak bana dezan, eta urtean behin batzarra burutzen da koruak eta Caritasen artean, dirua zertan erabiltzen den jakiteko.

**Apaizgintzarako bokazioaren astea**

Apaizgintzarako bokazioen astearen barruan, joan den astean bokazioei buruzko bilerak burutu ziren. Astea, amaitzeko, igandean herriko parrokia guztietan meza bereziak ospatu ziren. Antolatutako ekintzetan ez du jende gehiegik parte hartu, baina hala ere, antolatzaileak gustora zeuden, giro beroko ekintzak izan dira eta.

**JAIOTZAK**

- Maitane Nieto Herrasti. Otsailaren 5ean.
- Maialen Yarza Brellezo. 9an.
- Andrea Patricia Unanue Fernandez, 10ean.
- Julen Zubizarreta Lara, 11n.
- Asier Unanue Sebastian, 12an.
- Ane Garcia Jurado, 14an.

**HILDAKOAK**

- Gorka Galdos Exposito. Otsailaren 5ean. 59 urte.
- Joaquin Alberdi Andoaga. 9an. 67 urte.
- Maria Ballesteros Ballesteros, 11n. 80 urte.
- Francisco Javier Agirre Arruabarrena 15ean. 45 urte.
- Natividad Ranero Sainz, 15ean. 75 urte.

**TXOKO  
TABERNA**

*Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

**ESLU**

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88

**ARRASATE**



JON GOIKOLEA \*

## Nola ikusten da Euskadi Japonetik?

**Mundu** honetan herri guztiek norbere burua berezitat hartzen dute eta gauza bereziak egiten dituzte eta hori errekonozitu egiten zaie.

Frantzesek ugarioak jaten dituzte, espainolek zezena toriatzen dute, indiarrek hildakoak kalean erre egiten dituzte eta abar.

Baina japonesez ez dute euren burua berezi bezela bakarrik ikusten, berezi berezi bezela baizik, eta berezitasuna errekonozitzen ez bazaie ere, berezitasun hori bai behintzat.

Eta gu Euskaldunok noraino gara berezi? Guk geuk garbi daukagu, ziurtasun osoz eta kezka kendurik, bereziak gara, baina hori ez da nahikoa, beste batzuk nola ikusten gaituzten, azkenean hor dago problema.

Niri egunero eta egunero behin baino gehiagotan galdeztzen didate, "Eta zu nongoa zara?" "Ni Euskalduna".

"Euskalduna? Zer da hori?"

Mapan non agertzen da hori? Pasaporte nongoa duzu? Zuek ze letra klaserekin idazten duzue? Gordinik jateko arrain ona daukazu?..."

Eta galdetutako bakoitzean ordu erdiko esplikazioak ematen ibili behar. Baina beste herrialdeetako jendeak oso erraz dauka.

Adibidez Ingles batek "English" bakarrik esan behar du. Hitz bakar bat nahikoa dute eta identifikatua, errekonozitua eta errespetatua da.

Baina Euskaldunok egunero ordu erdiko esplikazioak ematen ibili behar dugu, jakin

.....  
**"Euskalduna? Zer da hori? Mapan non agertzen da hori? Pasaporte nongoa duzu?"**

dezaten zer garen.

Mapan ez garelako agertzen baina baietz, hor gaudela, pasaportean Euskadi ez duela jartzen baina....(hemen ere zedozer asmatu egin behar), beti beste hizkuntza batzuk hitz egiten ari garelako baina gurea ere badaukagula....

Ni aspertuta eta nekatuta nago hainbeste esplikazioekin. Asian Euskalduna izatea gogorra da, latza da.

Arrasaten jende askok galdetzen dit. Japonetik nola ikusten da Euskal Herria? Bada, jaun andreok, Japonetik ez da ezer ikusten.

Ni sei hilabetez egon nintzen bertako egunkaria hartzen eta han ez zuen Euskadiri buruz ezer jartzen. Orain poz handiz jasotzen dut Arrasate Press astero.

Baliteke gu European eza-gunagoak izatea, baina Asian ezezagun hutsak gara.

Orain ez ezagutzearen arazo horri irtenbideak bilatzeko, bi aukera daude: Lehen denok japonesez bihurtzea izango litzateke, baina nola haiek berezi-bereziak diren eta gu berriz ezer ere ez, haiek ez gaituzte behar. Bigarrena independentzia??? izango litzateke eta erantzuna denon artean bilatu behar dugu.

Goian ipinitako denak neure iritzi eta esperientziak dira eta inork pentsatzen badu erratuta nagoela, joan dadila enbajadore Euskaldunak zer garen esplikatzera.

Ah! eta Euskadiko mapa eta pasaporte ez ahaztu, gero. Besarkada bat.

(\* JAPONEN BIZI DEN  
ARRASATEARRA

## USTEAK USTE

### TELEBISTAREN BELDUR

**Lagun batek kontaktua da. Berak ezagutu ei ditu lantegian telefonoz hitzegiteko sekulako beldurra zuten lagunak, horretarako mila aitzaki jartzen zutenak. Eta telefona ez da hain inbentu berria.**

**Beste lagun baten amandreak, oraindik orain, sukaldea jaso eta txukun jatzeko ohitura zuen "telediarria" ixotu aurretik, ("zer esango du neska horrek"). Telebista ere ez da hain berria, eta etxe guztietan sartzen da; ohorezko konbidatua izaten da askotan, jatordu-tan ere "begirik kendu barik" egoten gara eta.**

**Baina mondragoen bada inbentu berriago bat, aste honetan hiru urte bete dituena. ATB da. Hiru urteak hiru urte, izotza ez da guztiz apurtu. Eta ez daukagu ningunorik herriko telebista gurean sartzen uzteko; datuek eta ATBk pizten duen ikusminak hori diote, eta eskertzekoa da. Baina geu telebistaren bidez inoren etxean sartzeko, amigo...! "Nire euskerie", "bestela bai, bañe kamarien aurrien ez" edo "egiak esateko bildurra" dira nagusi. Hala ere, hiru urte alperrik ez direla joan pentsatu nahi nuke, eta herrian bertan telebista izatearen lujoa aprobetxatzen ikasiko dugula, denok ere.**

ARANTZAZU LOIDI

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**ARRASATE**  
PRESS  
**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



Garagartza eta Kobateren arteko bideari irtenbidea eman nahi dio sinatutako Hitzarmenak.

## Hitzarmena Kobate eta Udalaren artean

Udala eta "Cantera y Calera de Kobate", "Hidróxidos de Kobate", "Hormigones Kobaudi" eta "Caleras Guipuzcoanas" enpresek 1991. urtean sinatutako Hirigintza Hitzarmena zabaltzeko agiria sinatuko dute berriro. Hitzarmena sinatu zuten enpresek, denbora kontuak eta plan partzialaren egituraketa medio, ezin izan dute 1991ean hartutako akordiorik bete; beraz, Udalarekin Hitzarmenaren luzapena erabaki dute.

Akordio berriaren arabera, aurrez aipatutako enpresek, Kobateko arau subsidiarioak onartu eta bi hilabetetara, inguru horretako plan partziala aurkezteko konpromezua hartzen dute, gero harrobia eta Aramaio-Arrasate errepedea elkartuko dituen bidea egin ahal izateko, bere garaian Diputazioak pentsatu zuen bezala. Plan partziala aurkeztu ondoren, enpresek lau hilabetetako epea izango dute konpentsazio batzordea sortu eta proiektua egiteko, eta beste lau hilabete

urbanizazio proiektua aurkeztu eta urbanizazio obrei hasiera emateko. Aipatutako enpresek Hitzarmenean azaltzen diren epeak betetzen ez badituzte, 5.000.000 PTako isuna ordaindu beharko diote Udalari; epeak ez betetzea errepikatzen den bakoitzean, milioi bat gehiago ordaindu beharko dute.

Kobateko enpresen betebeharrak alde batera, Udalak "Caleras Guipuzcoanas" enpresari lanean hasteko baimena ematen dio, aurrez katastroan alta emateko baldintza bete barik, baina ahalik eta azkarren betetzeko konpromezua. Era berean, Kobatek Aramaioa-Arrasate errepedera zuzenean joateko bidea egin ahal izateko tramiteak azkartu egingo ditu Udalak, behar den lurra ahalik eta azkarren eskuratuz.

Aipatutako Hitzarmenaren sinadurak Gobernu Batzordearen oneritzia izan zuen, baina oraindik Plenoaren baieztapena jaso beharko du.

### Iazko aurrekontuaren likidazioa

Iazko aurrekontuaren likidazioa onartu zuen Udaleko Gobernu Batzordeak, baina akordioak balioa izan dezan hurrengo Udal Plenoak asteleheneko erabakia baieztatu egin beharko du. Iaz Udalak 3.740.023.251 PTako sarrerak izan zituen eta gastuak, berriz, 3.090.455.557koak; beraz, bien arteko diferentziak, 640.567.694 PTako superabita erakusten zuen.

Dena dela, iaz onartutako gastu batzuk oraindik egin barik daude eta horiei aurre egiteko 378.616.893 PTako kreditua eskatzea ezinbestekoa izango da, eta Udal Plenoak onartu beharko du kreditu hori. Aipatutako kreditua onartzen bada, Udalak 1992ko aurrekontua 261.950.801 PTako superabitarekin itxiko da.

### LAB Udaletxean

Udaletxeko LAB sindikatua sail sindikal bezala antolatu da, horren ondorioz lan sindikala egiteko aukera handiagoa izango du. Era berean, Udaletxeko LAB sindikatuak, duen ordezkaritza zabala kontuan hartuta, liberatu bat izango du hemendik aurrera, Jon Alustiza udaltzaina.

# MENDI taberna

## Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiralez  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



laz 448 pertsonak erabili zuten kontsumitzaileen udal bulegoa.

## KIUBeko bulegorik ez da itxiko, nahiz eta EUDELeK gomendatu

Eudelek, Jaurlaritza edo Diputazioei dagokien zerbitzuak mantentzen dituen Udalteixe guztietara gutun bat bidali du, zerbitzuengatik indemnizaziorik lortzen ez bada, ixteko gomendatuz. Beste herri batzuetan, Tolosa eta Soralueze kasu, gutun horren ondorioz zuzenena, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa ixtea izan da. Arrasateko KIUB-OMIC bulegoa ez da itxiko -halaxe zion behintzat Bixente Etxeberria Sanitate, Gizarte eta Kontsumo zinegotziak-, "Pentsatu ere ez, kontsumitzaileen bulegoa ez dugu itxiko".

KIUB-OMIC zerbitzua 1983. urtean ireki zen eta azken urteotan hazkunde handia ezagutu du erabiltzaileen aldetik. 1991. urtean, esatebatera, 374 ekintza bultzatu ziren bulegotik: 272 kontsulta atenditu, 95 erreklamazio aurrera eramanez, 6 ikastaro eta hitzaldiz osatutako 6 kanpaina bultzatu eta inspektzio bat egin zen. Iaz, berriz, erabiltzaileen kopuruan %51,13ko hazkundera egon zen, guztira 566 ekintza: 448 pertsonen informazioa eman, 102 erreklamazio tramitatu, kontsumitzaileei zuzendutako 14 kanpaina antolatu eta 2 inspektzio egin ziren.

### Arazoak ATBko seinalearekin

Azken asteotan arazoak izan dira zenbait etxeetan ATBko irudiak jasotzeko. Arrazoiak aztertu ondoren, arazoa etxeko antenetan dagoela ikusi da. Hala ere, ATB ondo ikusten ez dutenek berri emanaz 77 06 90 telefono zenbakira deitzea eskatzen da.

### Gasolindegietan prezio bera

Prezioen liberaziziorako Gobernu Zentralak eman zuen baimena, hemen behintzat ez du eraginik izan, Meca eta Musakolako gasolindegietan prezio berak daude eta. Gasolina normala 96,30, superra 99,70, eta berunik gabe-koak 97,40.

### Euskarazko irakaskuntza

Udalak 200.000 PTako aurrekontuaz, Euskarazko irakaskuntzaren aldeko motibatze kanpaina antolatuko du. Kanpainako triptiko, txartel eta hitzaldietan, iazko lema erabiliko da, "Etorkizuna euskaraz dator".

**zortzi**

**GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE

**GORKA**

**ILEAPAINDEGIA**

Arrasaten irekiko dugu ileapaindegi berria!

Ferrerias, 35  
Tfnoa: 76 08 14  
ARRASATE

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

**UXARTE**

**Kafetegia, gozotegia**


Gauz irekita!!  
**JO TA KE!!**

Bañez doktorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**

**77 05 65**



Istripua Atxabalen gertatu zen.

## Kamioia irauli eta ordubete besoa harrapatuta

Kobate paretik pasatzen ari zela, Excavaciones Lete enpresako kamioi batek istripua izan zuen askezkenean. Istripua- ren ondorioz, kamioiaren gidariak, Jabier Agirre "Kurri" 33 urteko arrasatearrak, eskumako besoan zauri larriak izan zituen.

Istripua goizeko hamaikak aldera gertatu zen. Kamioia bidetik irten eta mendian behera 25en bat metro egin zituen bueltaka. Jabierrek gorputza libratzea lortu zuen, baina ezkerreko besoa kamioiaren azpian harrapatuta geratu zitzaion. Kamioi gidariak ia ordubete egin zuen egoera horretan, eta 12ak aldera ateratzea lortu zuten. Eskualde Ospi-

talera eraman; arratsaldeko 4ak aldera kirofanoan sartu zuten operatzeko. Segurtasun handirik ez izan arren, Jabier Agirrek berak, besoa normaltasunez erabiltzeko esperantzak zeuzkan. "Badakit errehabilitazioa luzerako izango dela eta muskulua zeharo maspilduta izan arren, atzo baino hobeto nago, behintzat hiru hatzamar mugitzen ditut".

Istripua Kobate harrobiarekin lotu bada ere, bertakoek argi utzi dute Excavaciones Lete enpresako kamioia, Santa Agedako zabortegitik materialea ateratzen ari zela eta ez harrobian lanean.

## Peixoto atxilotua

Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" arrasatearra eta beste bost kide atxilotu zituzten polizia frantziarrak Baigorriin. "Peixoto"ren atxiloteta astearte goizean gertatu zen Baigorriko bere etxean eta ostegunean Parisera eraman zuten, Levert epailearen aginduz.

Komunikabideek adierazi dutenez, "Peixoto"ren atxilotetak martxoaren 29an Bidarten atxilotutako "Pakito"ri irekitako sumarioarekin zerikusia du.

Jose Manuel Pagoaga orain 48 urte jaio zen Arrasateko Aranguren baserrian. "Peixoto"k 1960.eko hamarkadan egin zuen ihes Iparraldera, bertan errefuxiatzeko. 1979. urtean atentatu bat jasan zuen Donibane Lohitzunen eta hilzorian egon zen, ordutik arazoak ditu bistarekin. 1982. urtetik "Peixoto"k Errefuxiatu Politiko estatutua eta betirako erresidentzia baimena dauka eta gaur egun Euskal errefuxiatu politikoen bozeramalea da. Arrasatearra, Iparraldeko emakume bategaz ezkondu ta dago eta bi seme dauzka.



Parques  
y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)




Kirolaririk onena edota kirol talderik onena aukeratzeko gure irakurleen iritzia eskatu dugu eta Luis Mari Lopez Rekarte izan da aukeratua. Erantzun dexente jaso dugu ARKOn eta horien artean hiru baloi zozketatu ditugu. Argazkian ikusten dituzuen hiru hauek dira irabazleak: Ander Moraza, Soko Añibarroren semea eta Iosu Juan Llodio Okendo Kirolaken jaso zuten saria.



**Pasa den igandean Al Andaluseko zentruan bisita bat jaso zuten. Eskoriatzako San Viator etxean dauden bosniarrak Erguineko zentru horretan izan ziren eta argazkian ikusten den bezala, Andaluziako dantza eta ohiturak ezagutzeko aukera izan zuten.**

**Jadanik pasa dira bi aste Gesalibarko jaietan Parisera bidia zozketatu zenetik eta oraindik ez da 9930 zenbaki-dun boletuaren jabea azaldu. Jai horietan boletoren bat erosi bazenuen, adi ibili eta lehenbait lehen begiratu txartela; Pariserako bidia dago jokoan.**

San Frantzisko Xabier ikastolak liburuxka bat atera du bere ikasleen artean banatzeko. Orientazio departamentuak prestaturik, Jose Anjel Iturberen marrazkien bidez, ikasteko ohiturak aztertzen dira eta bide batez aholkuak ematen zaizkie ikasleei.



**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
 77 05 65

**BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK**  
**XAHO**  
 ANGELA UNZUETA  
 Novecento eskusiban Paola Frasoni, Liseta Paoletti, Dinastie  
 Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

**ARAMAIO okindegia**  
 Maisu Guridi, 3  
 Tfnoa: 79 36 46



**Haratuzteak hastear daudela eta, umeez ere euren mozorroa prestatu nahi izan dute. Horretarako Ludotekan ikastaro berezia izan zuten pasa den**

**asteazkenean. Koloreak nola erabili, material merkeekin eta gutxirekin moldatzen eta bestelako teknikak erabiltzen ikasi zuten umeez.**

1.618 zenbakiko boletoaren jabeak beharbada ez du jakingo oraindik txekor bat irabazi duela, Gestorak zozkatzen duen txekorra, hain zuzen. Bigarren zozketaren zenbakia da eta gogoratu Santamasetan Gestorak egiten duen urteroko zozketa dela. Txekor eder hori hainbeste denbora ondoren mejoratu ere egingo zen!



## IZEN PROPIOAK

● **Honako** hauek dira Hezibideko ikastetxe desberdinetako mediateken ardura-dunak: **Amaia Aspiazu**, San Frantzisko Xabierren; **Gurandane Etxebarria** Ahi-zke-Cimen; **Begoña Arrieta**, San Viatorren; **Rafa Agirre** Eskola Politeknikoan; **Mañole Ezenarro** Almenen eta **Nerea Alzola** Irakasle Eskolan.

● **Karmele Zuazubiskar**, 30 urte, izango da aurrerantzean Udal Euskaltegiko Idazkari Akademikoa da. Magisteritza ikasi eta aurtengo, Udal Euskaltegian dagoen bostgarren ikasturtea da.

● **Errukane Aperribai**, 22 urte, arrasatearrak AE-Drentzat ikerketa egin du. Marketing teknikaria da eta Arrasaten AED ezagutzen den eta nola ikusten den ikertu du.

### BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETA**

### OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

Gipuzkoa:  
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**



kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa

caja gipuzkoa  
san sebastián



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN




## Txapelketako bigarren fasea eratuko da astelehenean

Larritasun aurpegia du argazkiko jokalariek eta ez zeukan zertan arduratuta egon beharrik, bere taldea dagoeneko hurrengo faserako sailkatuta dago eta. Beste batzuentzat gauzak oraindik ez dira bat ere argitu: Danok Lagun, Bukanak, Nuevo taberna, Gure Leku, Alpargata

Turbo, Notxingan Flores, Monterrey taberna eta Zotz taldeentzat. Oraingoz sailkatuta daudenek eta asteburu honetan sailkatzen direnek osatuko dituzte hurrengo faseko lau taldeak. Hogeitalau taldeentzat astelehenerako deialdia: arratsaldeko 7etan Monterronen. 2. faseko zozketa.

Iluntz  
taberna  
ARRASATE



IRATI  
TABERNA

Ferrerias kalea ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80

<b>a</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	16	13	2	1	99	37	<b>28</b>
ZULOAK	16	13	1	2	65	31	<b>27</b>
ARRASATE KIROLAK	16	11	2	3	65	41	<b>24</b>
LOS HEREDIA	16	9	4	3	69	28	<b>22</b>
BETRAYER	16	9	4	3	54	33	<b>22</b>
KAIXO LENIZ1	16	10	2	4	67	63	<b>22</b>
URMAY B. K.	16	8	5	3	54	33	<b>21</b>
DANOK LAGUN	16	8	3	5	54	33	<b>19</b>
BUKANAK	16	7	4	5	50	45	<b>18</b>
AIZPUN BILA	16	8	1	7	51	51	<b>17</b>
ITT	16	7	2	7	68	40	<b>16</b>
SIBILIUS ROVER	16	5	5	6	37	39	<b>15</b>
DRINK TEAM	16	4	3	9	29	62	<b>11</b>
DRAFT	16	4	0	12	54	80	<b>8</b>
WHISKERIA LINDE	16	4	0	12	47	74	<b>8</b>
RESAKAS	16	1	3	12	25	70	<b>5</b>
GARIBAI-5	16	1	1	14	23	73	<b>3</b>
AMOKIBAR II	16	1	0	15	32	110	<b>2</b>
GUZTIRA	288	123	42	123	943	943	288

<b>b</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	16	13	2	1	56	21	<b>28</b>
ZIZTI-ZAZTA	16	11	3	2	61	24	<b>25</b>
BIZKORRAK	16	11	2	3	37	23	<b>24</b>
ZULUS	16	11	1	4	65	45	<b>23</b>
JODO FLORO	16	9	4	3	44	32	<b>22</b>
DIEGO ANTONIO	16	9	3	4	54	33	<b>21</b>
MOTZ	16	9	2	5	58	61	<b>20</b>
PUBLICOOP	16	9	2	5	36	39	<b>20</b>
LA BANDA	16	7	2	7	46	36	<b>16</b>
KAKAJAURI	16	6	4	6	41	55	<b>16</b>
GATZBAKUAK	16	4	5	7	31	47	<b>13</b>
TRONKOTEAK	16	5	3	8	50	56	<b>13</b>
ANBOTOSTE K. T.	16	5	1	10	37	52	<b>11</b>
LAUTHERBRUNNEN	15	5	1	9	27	52	<b>11</b>
BAYERN PROMESAS	16	3	2	11	23	62	<b>8</b>
ATERPE KAFETEGIA	15	2	2	11	30	-47	<b>7</b>
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	286	123	39	124	735	735	286

<b>c</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	16	13	2	1	82	22	<b>28</b>
ADELAIDA HAIZEA	16	12	2	2	96	25	<b>26</b>
NOSKI	16	13	0	3	90	40	<b>26</b>
LASO ARREGI	16	9	4	3	64	39	<b>22</b>
TXOKO TABERNA	16	10	1	5	45	38	<b>21</b>
ARRASATE KRIST.	16	10	1	5	61	37	<b>21</b>
NUEVO TABERNA	16	9	2	5	66	52	<b>20</b>
GURE LEKU	16	8	2	6	69	51	<b>18</b>
ALPARGATA TURBO	16	8	2	6	58	51	<b>18</b>
ADOBE F. C.	16	8	0	8	49	53	<b>16</b>
NAVARROS	16	7	1	8	52	54	<b>15</b>
AUF DEM KOFFER	16	6	2	8	40	46	<b>14</b>
GANBELAS	16	5	2	9	41	49	<b>12</b>
KRISKIBALDA	16	2	5	9	37	63	<b>9</b>
SEGUROS ORBITA	16	3	1	12	42	73	<b>7</b>
ATXANTA KE TE...	16	3	0	13	32	94	<b>6</b>
ALLAKUIDAUS	16	1	2	13	25	95	<b>4</b>
BALEIKE	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	288	129	30	129	972	972	288

<b>d</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	16	12	3	1	91	27	<b>27</b>
LEINTZ GARAGAR.	16	11	3	2	69	29	<b>25</b>
POTROAK LORAT.	16	10	4	2	63	38	<b>24</b>
KOKKAS	16	9	4	3	57	41	<b>22</b>
PEPELUS	16	9	4	3	59	37	<b>22</b>
LOS DIMY	16	8	5	3	75	38	<b>21</b>
NOTXINGAN FLO.	16	8	4	4	61	50	<b>20</b>
MONTERREY TAB.	16	9	1	6	69	37	<b>19</b>
ZOTZ	16	9	1	6	59	56	<b>19</b>
FOTO IMAGEN	16	7	3	6	66	50	<b>17</b>
ARTZANKOS UDAL.	16	7	3	6	62	54	<b>17</b>
SOKOAKOAK	16	6	1	9	58	69	<b>13</b>
UGLYS	16	5	0	11	38	54	<b>10</b>
SOLANO 7 MARES	16	5	0	11	57	60	<b>10</b>
OLEEE!	16	4	1	11	41	81	<b>9</b>
EZKINAKO HONTZAK	16	3	0	13	32	87	<b>6</b>
BAYERN DE LENIZ	16	2	1	13	31	88	<b>5</b>
ILUNA TABERNA	16	1	0	15	22	104	<b>2</b>
GUZTIRA	288	125	38	125	1.000	1.000	288

**ITURRIOTZ**  
**taberna**



**Girorik jatorrena!**  
Tfnoa: 79 16 04

-----

**LIZARRA**  
**taberna**

Leintzibar kalea, 2  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 72 35

-----



**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



**Erri ezkeru zutitzen jakitea oso inportantea ei da, baina erortzen jakiteak ere garrantzi handia dauka. Gorputza alde batera ohituta badago, bapatean erreakzionatu behar denean samurrago jartzen da eskatzen zaion ahaleginera.**

**BELARRIRA**

◆ **Baleike kanpora**

Baleike taldea txapelketatik ez ezik afarien zozketatik ere kanporatua izan da, joan zen asteko partidura ez agertzearen. Geratzen den ihardunaldian horrelakorik ez errepikatzea espero dute antolatzaileek, aste honetan bezala, agertzen ez diren taldeei afarien zozketan sartzeko aukera kenduko zaie eta.

◆ **Zozketak**

Aste honetan afariak irabazi dituzten bi taldeak Iluna taberna eta Oleee! izan dira. Zorionak bie eta animoak besteei!!

◆ **Interesgarriena**

Lehen fasea itxiko duten partidurik interesgarrienak honako hauek dira: Solano 7 mares - Zotz, Adobe - Arrasate Kristaldegia, Alpagata Turbo - Noski, Gure Leku - Seguros Orbita, Bukanak - Danok Lagun eta Sokoakoak - Notxingan Florest. Guztietan, sailkapena jokoan!!

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Drink Team 5 .....	Amozkibar II 4
Zuloak 8 .....	Aizpun Bila 1
Bukanak 2 .....	Resakas 2
Betrayer 3 .....	Draft 2
Arrasate Kirolak 9 .....	Garibai-5 2
Sibilius Rover 2 .....	Kaixo Leniz 2
Danok Lagun 6 .....	Whiskeria Linde 2
Los Heredia 3 .....	Argi Ibili 3
ITT 3 .....	Urmay Burger King 3

**C TALDEA**

Atxanta ke te... 2 .....	Arrasate Kristal. 8
Alpagata Turbo 7 .....	Navarros 4
Laso Arregi 4 .....	Gure Leku 3
Ganbelas 3 .....	Seguros Orbita 8
Adobe C. F. 2 .....	Adelaida Haizea 7
Noski 7 .....	Krskibalda 2
Nuevo Taberna 3 .....	Txoko Taberna 4
Trikiti 1 .....	Baleike 0
Auf Dem Koffer 8 .....	Allakuidaus 2

**B TALDEA**

Mikelos 3 .....	Gatzbakuak 1
Kakajauri 2 .....	Bayern Promesas 1
Publicoop 0 .....	Zulus 1
Aterpe Kafetegia 7 .....	Anbotoste K. T. 3
Jodo Floro 2 .....	Zizti Zazta 1
Lautherbrunnen 5 .....	Tronkoteak 3
Bizkorrak 1 .....	Motz 0

**D TALDEA**

Monterrey tab. 2 .....	Sumin. Ugarte 2
Foto Imagen 4 .....	Oleee! 5
Uglys 3 .....	Sokoakoak 5
Ezkiñako Hontzak 1 .....	Notxingan Flo. 4
Leintz Garagardotegia 3 .....	Zotz 5
Artzankos Udalaiz 5 .....	Pepelus 3
Los Dimy 4 .....	Iluna taberna 1
Bayern de Leniz 2 .....	Potroak Lorategi 1
Solano 7 mares 2 .....	Koxkas 4

*Trikiti* S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 20**

**Zaldibar**

- 08.45 Kakajauri / Lautherbrunnen
- 10.00 Los Heredia / Whiskeria Linde
- 11.00 Zulus / Anbotoste K. T.
- 12.00 Solano 7 mares / Zotz
- 13.00 ITT / Garibai-5
- 14.00 Publicoop / Bizkorrak
- 15.00 Resakas / Draft
- 16.00 La Banda / Zizti Zazta
- 17.00 Auf Dem Koffer / Adelaida
- 18.00 Adobe / Arrasate Kristaldegia
- 19.00 Diego Antonio / Motz

**Iturripe B**

- 13.00 Drink Team / Urmay Burger King
- 14.00 Jodo Floro / Gatzabakuak
- 15.00 Laso Arregi / Nuevo taberna
- 16.00 Betraye / Aizpun Bila
- 17.00 Alpagata Turbo / Noski

**Iturripe A**

- 11.00 Zuloak / Sibilius Rover
- 12.00 Leintz Garagar. / Suministros Ugarte
- 13.00 Gure Leku / Seguros Orbita
- 14.00 Arrasate Kirojak / Amozkibar II
- 15.00 Trikiti / Txoko Taberna
- 16.00 Foto Imagen / Artzankos Udalaiz
- 17.00 Atxanta ke te mereces / Alla Kuidaus

**Igandea 21**

**Zaldibar**

- 08.45 Bayern de Leniz / ILuna Taberna
- 10.00 Aterpe Kafetegia / Bayern Promesas
- 11.00 Ganbelas / Navarros
- 12.00 Bukanak / Danok Lagun
- 13.00 Sokoakoak / Notxingan Florest


**Iturripe A**

- 11.00 Monterrey taberna / Koxkas
- 12.00 Argi Ibili / Kaino Leniz

**Iturripe B**

- 09.45 Potroak Lorategi / Pepelus
- 11.00 Uglys / Los Dimy
- 12.00 Ezkiñako Hontzak / Oleel

**NON DAGO BALOIA?**



Non ote dago baloia? Ez dakizulal berdin da, jokatu edozein zenbakitara, badakitela pentsatzen dutenek ere, ez dute beti asmatzen eta. Badakizu, **Non dago baloia?** lehiaketeko sari ederra eramateko, bide bakarra lehiaketan parte hartzea da.

**13. astea**

**NON DAGO BALOIA?**

- Erantzuna .....
- Izena .....
- Tfnoa .....



*Tripublik*

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
  - Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● *Tomas Etxabe*

# Pobrezia gero eta nabariago Euskal Herrian

**“La sociedad de la desigualdad” izeneko liburuaren 18 idazleetarikoa bat dugu Tomas Etxabe. Zutiek ekarri zuten hizlari Arrasatera: Gaur egungo pobrezia, klaseen arteko desberdintasuna, industrigintzaren ondorioak dira bere kezka nagusienak.**

— Zeri buruz hitz egiten digu “La sociedad de la desigualdad” liburuak?


— 18 idazleren artean idatzitako liburu honetan, joan zen urteko Apirilean desberdintasunaren inguruan eginitako ihardunaldietatik ateratako ondorioak laburtzen dira nagusiki. Ihardunaldi hauek, Hego Euskal Herriaren desberdintasun soziala aztertzen da batez ere. Bost atal nagusi ditu liburuak: desberdintasunaren zergatia, marginazioaren arazoa, Estatua-ren papera eta baliabide sozialak, merkatu ekonomiaren baloreak eta diru sarrera sozial unibertsalei buruz nik neuk eginitako ekarpena. Ia gehienak errealtatetik hartutako datuak dira, nahiz eta batzuk teoriarik bakarrik geratu.

— Zein da zuk bultzatzen duzun teoria?

— Nire abiapuntua honako hau da: gizartean dauden pertsona guztiek, lana eduki edo ez eduki, mundu egokian bizitzeko eskubidea dute. Gaur egungo gizartean dugun mentalitatea da erruduna, lanari buruz dugun mentalitatea. “Lan egin dezala horrek ere!” esan dezake langile batek, baina errealtatean, denok dugu ondo bizi izateko eskubidea, nahiz eta lanik ez izan. Teoria hau, beti ere, Mendebaldeko Gizarteari begira egiten den gauza da, mundu osorako ez du balio eta.

— Noiz sortua da teoria hori?

— Nik uste nuen gauza berria zela baina piska bat bat ikertzen ibili naiz eta 1785ean Industrigintza gizarteratzen hasi zenean, Ingalaterrako estatua batean, kontzeptu eta irizpide desberdinekin, soldata sozial honen sorrera planteatu zen. Nekazaritza gero eta ahulagoa zen eta jende asko ari zen gosez hiltzen. Arazo honen konponbidea soldata soziala izan zen. 1933an Dinamarkan ere jarri



zen martxan. Ondoren, Alemanian, Ingalaterran eta beste toki askotan modelo bera ezagutu zen. Orduko arazoei konponbidea emateko jarritako modelo honek urteetan zehar jarraitu du, baina arazo horiek ez dira konpondu, are gehiago, okertu egin dira.

— Gure gizartean teoria horrek badu tokirik?

— Neurri batean gure gizartean sartzen ari da, nahiz eta oraindik neurri apal batean izan. Batzuk, lanaren bidez irabazten ez dituzten soldadak ari dira jasotzen. Hor dago jadanik martxan diru sarrera gutxiengoaren prozesua edo soldata soziala. Horrek esan nahi du agintean daudenak konturatu direla gure gizartean pobrezia nahiko handia dela. Hau da, orain arte Caritas-ek betetzen zuen funtzioa

gaur egun Administrazioak betetzen du. Urtean gutxi gorabehera 5.000 miloi gastatzen ditu horretan. Hala ere, esan bezala maila apal batean jarri dute martxan teoria hori, diru sarrera hori oso txikia baita, 45.000 pezetakoa. Baina nire ustez oso inportantea da filosofia aldetik, hau da, gaurko gizartean onartzen da lanik egin ez arren, diru sarrera bat jasotzeko eskubidea dugula denok.

— Euskal Herriko pobrezia berezitasunak zeintzuk dira?

— Pobrezia urbanoa da Euskal Herrikoa, hau da, industrigintzaren ondorioz datorren marginazioa. Euskal Komunitate Autonomoan soldata soziala eskatzen duten tokirik nabarmenena Bilboko Ezker Aldea da, eta ez da kasualitatea, industrigintzaren ondorioa baizik. Hala ere, Euskadin nahiko berria da pobrezia, Europan 100 urtetik gora du, baina hemen aberastasunak gaizki banatuta daudenez, pobrezia gero eta nabariagoa da.

● **“Gizartean dauden pertsona guztiek, lana eduki edo ez, mundu egokian bizi izateko eskubidea dute”**

# Emakumearentzako zerbitzuaren beharra

Rosa Mondragon

**Urteak pasa ahala, badi-rudi gizartean emakumearen egoera hobetuz joan dela nolabait. Hala ere, oraindik lan gehiena egiteko dago eta Arrasaten konkretuki ez dago zerbitzu berezirik emakumeari zuzenduta. Hori eskatu nahian, Arrasateko emakumeen lau talde bildu dira eta proiektu bat aurkeztu dute Udaletxean.**

Egizan, Emakumeen Asanblada, AEDko Ekin emakume taldea eta Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko ordezkariak gizarte mailan emakumeen egoera, gizonenaren berdintsua izan dadin eta horretarako Udalak egin beharko duen lana zuzentzeko, proiektu bat aurkeztu dute. Baina, eskaera konkretuak gauzatzeko lehendabizi infrastruktura edo azpiegitura egokia egon beharko litzateke euren ustez. Udalean bi bide desberdin egon daitezke emakumeen zerbitzua aurrera eramateko: Gizarte Ongizate edo kultura sailetan edota

emakumearentzako kontzejalia baten bidez. Arrasateko Udalean, Gizarte Ongizate Batzordearen barruan dago emakumearen saila.

## EMAKUMEAREN KONTZEJALIA

“Gure ustez hori ez da emakumeak gizartean integratzeko ekintza positiboak garatu eta aberastatuko dituen politika lokala egiteko esparrurik egokiena” onartzen dute aho batez. Egokiena emakumearentzako kontzejalia egotea izango litzateke baina momentuz emakume talde hauek ez dute halakorik eskatzeko asmorik, datorren hauteskundeetarako alderdi politiko desberdinen programan agertzea eskatuko baitute. Eta maila horretan, hasi dituzte jadanik alderdi desberdinekin lehengo kontaktuak eta orain arte denek euren onespena azaldu diete. “Arrasaten ez da egon orain arte ardura politikorik arlo honetan eta arazoak konpontzeko horixe da behar den lehen pausua” komentatzen digu Malen Errastik, Emakumeen Asanbladako ordezkariak. Pasa den 1991ko maiatzean onartu zen Eusko Jaur-

lartzan ekintza positiborako plangintza. Ordutik, hainbat herritan jarri dira martxan antzerako proiektuak, baina Arrasaten nahiz eta eskaera batzuk egon, orain arte ez da

ezertan gauzatu. Horregatik, emakumeen talde honek aurkeztu duen programaren bidez, Udalak emakumeen egoera kontrolatu eta hobetzeko jarraitu beharko duen



Lehen aldiz bildu dira emakumeen lau taldeak proiektua lantzeko.

plana zehazten da. "Udalaren ardura, gizarteko bizilagun guztien ongizatea ziurtatzea da, eta emakumeok, Arrasateko populazioaren %50, alde batera utzita egon gara" esaten digu Sagrak.

### LAGUNTZA-ZERBITZUA

Udalak egin behar duenaren nondik norakoa finkatu ondoren, eskaera konkretu batzuk egiten dituzte. Lehendabizi, laguntza zerbitzua martxan jartzeko eskakizuna aurkeztu dute. Laguntza zerbitzu honen bidez ez da asistente sozial baten lana bete nahi. Emakumea bizitza sozialeko alor guztietan, baldintza berdinetan esku hartzeko eskubide osoa duen subjektu hartuko duen zerbitzua izango da hori. Azken finean, gizarte mailako arlo guztietan berdintasuna lortzea izango litzateke helburua. "Emakumeen arloan gehiena egiteko dagó oraindik, historian zehar beste pisu batzuk

izan ditugulako batez ere: umeen heziketa, pertsona nagusien eta gaixoen zainketa... Sozialki eta historikoki ez dugu tokirik euki."

### BABES ETXEA

Babes etxea da eskaera horretako bigarren puntua. Indarkeriaren biktima izan diren emakume guztiei zuzendutako etxea izango da. Orain arte antzerako kasua gertatu denean, Udalak ostatu batera bidali du emakumea, baina ez da irtenbide egokiena. "Batez ere tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei edo bortxatuei zuzentzen zaie etxe hau. Uste dugu hasieran nahikoa izango dela, baina denborarekin ikusi beharko da nahiko den ala, beste herri batzutan bezala, egoitza berezia zabaldu beharko den. Azken finean, beharrezkoa da halako zerbait eukitzea, horrelako kasuak egunero gertatzen dira". Eta kopuruaz hitz egiten hasi

garenez, hona hemen azken urteotako emakume bortxatu eta tratu txarrak jasan dituztenen zifrak. 1990.ean Euskal Herriko Komunitate Autonomoan 14.500 emakumek tratu txarrak jasan zituzten, Estatu Espainolean, berriz, 200.000 emakumek, eta horietatik 81 hilik gertatu ziren. Izandako tratu txar guztietatik %5a bakarrik izan ziren salatuak.

### OINARRIZKO PREMIEN AZTERKETA

Baina eskatzen duten ekintza positiboa martxan jartzeko, beharrezkoa da lehendabizi azterketa bat egitea. Arrasateko emakumeen egoeran premiazko beharrak aztertu ondoren: osasuna, arlo profesionala, heziketa..., konponbidea bilatzea errazagoa litzateke. Adibidez, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan emakumeen heziketa maila igotzeko kurso eta ikastaro bereziak antolatu dira. . Ildo beretik jarraituz, Deba Garaian enplegatu kopuru osotik %20a bakarrik dira emakumeak. Hala ere badirudi arazoa askoz ere sakonagoa dela eta horregatik azaltzen dute, hain zuzen, azterketa horren beharra. Eskatzen duten zerbitzu berriaren bidez, oinarrizko beharrak koordinatuko lirateke eta egin beharreko aldaketak aztertu.

### BESTE HERRIETAKO ESPERIENZIA

Beste herrietan ere antzerako proiektuak ezagutu dira: Beasain, Errenteria, Eibar, Zumarraga, Donostia, eta baita Andoainen ere. Orain dela hiru urte sortu ziren lehenak eta ordutik herri askotan jarri dira martxan bai zerbitzua bera, baita babes etxeak ere. Momentuz, proiektua aurkeztu da, zerbitzua martxan jartzea espero da eta hurrengo hauteskundeetarako emakumeen kontzejal bat ere eskatuko dute.

**"Guk ez dugu beste munduko gauzarik eskatzen, legezko gauzak baizik, oinarrizkoenak"**

**MALEN ERRASTI**

**"Tratu txarren zifrak ikusita, nabaria da oraindik asko geratzen zaigula egiteko eta lortzeko"**

**SAGRA LOPEZ**


**"Oraindik ere emakumeen kopuru handi batek oinarrizko heziketak egin eta gero uzten ditu ikasketak. Oraindik gure buruarekiko sentsibilizazio eta kontzientzia falta nabaritzen da"**

**JONE ASTIGARRAGA**

**"Neurri handi baten emakumeok erosotasunagatik ez gara gehiegi kezkatzen, geure egoerarekin konformatu egiten gara"**

**BITTORI ETXEBERRIA**





laz bezala, aurten ere Gatzagan egingo da taldearen aurkezpena.

# Dorleta prest denboraldi berrirako

Dorleta Txirrindulari Elkarteak haur, kadete eta jubencil mailako taldeen aurkezpena egingo da bihar, Dorletan. Goizeko 10etan taldeen aurkezpena egingo da, ordu-erdi beranduago meza eta ondoren Gatzaga gaineko Marisan luntxa.

Haur-mailan talde bat, kadeteetan bi eta jubencil-mailan beste bi izango ditu Dorleta Txirrindulari Taldeak aurten. Lehen urteko kadeteen taldea, Roldanen gidaritzapean, sei txirrindularik osatzen dute. Bigarren urteko kadeteen taldea, Estevezek zuzenduko du eta hamalau txirrindulari izango dira bertan. Jubencil mai-

lan, beste bi talde izango dira, guztira 26 partaide, Kepa Urain eta Manolo Reig-ek zuzenduta. Talde hauei, eskolako txirrindulariak gaineratu behar zaizkie, beste hamabi ume.

Denboraldirako aurrekontua bost eta sei milioiren artekoa da, Gipuzkoan burutuko diren proba guztietan parte hartzea ahalbideratuko duena. Gainera, jubencil Nafarroako Bira egin ahal izango dute.

Aurreko denboraldietan egin dutenaren arabera, ondorengo txirrindulariak jo daitezke garrantzitsuen bezala: Alberto Roldan, Urbina, Reig, Urain, Elizburu,

Frutos, Mikel Roldan eta Sedano. Horiek huts egingo balute, prest izango dira beste batzuk, taldean ia izako txirrindulari berberak daude eta. Beraz, denboraldiari begira ilusioa nagusi.

## Hitzaldia Aretxabaletan

Biharko aurkezpenaz gain, gaur arratsaldeko 7etan Aretxabaletako Zarea zineman hitzaldia antolatu du Dorleta Txirrindulari Elkarteak, "Medikuntza kirolean" izenburuko hitzaldia. Hizlaria Antton Gorrotxategi izango da eta bailarako txirrindulari profesionalak bertan izango dira.

## LABURRAK

### Publikoaren saria Luis Mari Lopez Rekarterentzat

Luis Mari Lopez Rekartek eramango du aurten lehenengoz Arrasate Kirol Elkarteak antolatutako "Publikoaren Saria". Egia esan, hautaketan ez du jende gehiegik parte hartu, baina hala ere, jasotako txartelak argi utzi dute Luis Mari Lopez Rekarte izan zela arrasatearren iritiz, iazko kirolari onena. Rekarteren ondoren, hor izan dira lehian Patxi Gorosabel eta Gaizka Aranegiren ize-nak, baina Deportivo-ko futbolariarengandik urrun.

### Euskadiko Kros Txapelketan Kabiketa bikain


Gamarran burututako Euskadiko Kros Txapelketan 389 korrikalarik hartu zuten parte, horietatik 6 arrasatearrak. Arrasatearren artean, posturik onena Enrike Kabiketak lortu zuen, beteranoen kategorian zilarrezko domina lortuz; kategoria berean, Cesar Diez eta J. R. Eskibelek egin zuten korrika. Kategoria nagusian, Jaber Mentxaka izan zen arrasatear onena, 55. postuan; ondoren, Enrike Kabiketa, J. R. Petreñas eta Pedro Zalama.

Bestalde, Zaragozako Espainiako Promesa Txapelketan, Aitor Arnaiz-ek finalerdietaraino iristea lortu zuten eta Euskadiko kadeteen txapelketan Igor Regero bigarrena izan zen altuera jautsian, 1.75 metroko markarekin.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrial

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**PENALTIAK**

● **Eskubaloiko senior mailako partidurik ez zen jokatu joan den asteburuan, ez baitzen arbitrorik agertu. Oraindik ez da arbitroak ez agertzearen arrazoirik eza gutzen. Edozein modutan, Jesus Mari Herrero junior mailako partidua arbitratu behar izan zuen, eta partidua ikusi zutenek diotenez etxe-koek aurkako jarrera azaldu zuen.**

● **Rugby taldeko emakumezkoek debuta egin zuten joan den asteburuan Gasteizen. Partidua gasteiztarrek irabazi zuten, 28 eta 7, baina jokalariek fenomeno pasa ei zuten; baita Arrasatek Gasteiza joan ziren 50 animatzaileek ere.**



**Mondrarentzat partidu garrantzitsua liderraren zelaian**

Mondrak partidu garrantzitsua jokatu du Irunen asteburu honetan, Real Unión liderraren aurka. Partidua Mondrak irabaziko balu, liderrarengandik duen abantaila asko murriztuko litzateke; galdu ezker, berriz, ez litzateke aparteko hondamendirik sortuko. Beraz, Mondrak beldur barik hasiera hasieratik garaipenaren aldeko apustua egin beharko du.

Partidu horretara begira, jokalaria bakarrak egon ez daitezen, Mondrako zuzendaritzak autobus-zerbitzua antolatu du, Irungo Stadium Gal-era joan nahi duten guztientzat. Bidaiaren prezioa 800PTA eta izen ematea Rumba eta Monte tabernetan.

**Txirrianduan krisirik igarri duzue?**

Azken bi urteotan mult gutxiago etorri zaigu, eta alde horretatik bai, baina sponsorrei dagokien ez, orokorrean tropelean arazoak somatzen badira ere.



**JOSE MANUEL GARCIA**  
**Dorleta Txirriandulari elkarteko idazkaria**

**EMAITZAK**

**Eskubaloia**

Seniorrak: Arrasate Kirolak - Aloña Mendi (Suspenditua)  
Juniorkak: Arrasate Kirolak 20 - Usurbil 24  
Jubenilak: La Salle Legazpia 24 - Arrasate Kirolak 18  
Kadeteak: Leitzaran 16 - Arrasate Kirolak 20  
**Hurrengo partiduak**  
Seniorrak: Karmelo - Arrasate Kirolak, Donostian.  
Juniorkak: Urola - Arrasate Kirolak, Zumarragan.  
Jubenilak: Arrasate Kirolak - Aloña Mendi, Iturripen igandean eguerdiko 12etan.  
Kadeteak: Hondarribi - Arrasate Kirolak, Hondarribian.

**Saskibaloia**

Juniorkak: Arrasate 90 - Hator Asesoria 102  
Kadeteak: Gizonezkoak: Arrasate A 76 - Aldapeta 40  
Urtek 65 - Arrasate B 54  
Emakumezkoak: Arrasate A 45 - Etxadi B 53  
Arrasate B 55 - Zahor 37  
**Hurrengo partiduak**  
Seniorrak: Gizonezkoak: Donosti - Arrasate, Donostian igandean 12etan.  
Emakumezkoak: Bergara - Arrasate, Bergaran igandean 12etan.

Juniorkak: Politekniko A - Arrasate, Donostian larunbatean 4etan.  
Jubenilak: Gizonezkoak: Loyola A - Arrasate, Donostian, larunbatean 4.45etan.  
Emakumezkoak: Arrasate - Janak Donosti, Musakolan, igandean 12etan.  
Kadeteak: Gizonezkoak: Amigos Baloncesto A - Arrasate A, Irunen, igandean 11.45etan.  
Gizonezkoak: Arrasate C - Iraurgi, San Viatorren, igandean 12etan.  
Emakumezkoak: Almen - Arrasate A, Almenen, larunbatean 12etan.  
Almen B - Arrasate B, Almenen, larunbatean 4etan.

Haurrak: Sporting 4 - Arrasate 2  
**Hurrengo partiduak**  
Emakumezkoak: Mondra - Intxaurdi, Atxabalpe, larunbata 10.30etan.  
Ohorezko maila: Mondra - Anaitasuna, Atxabalpe, igandea 4.15etan.  
Lehen mailako jubenilak: San Andres - San Ignacio, Atxabalpe, igandea 12etan.  
Bigarren mailako jubenilak: Arrasate - Urki, Atxabalpe, larunbata 4.15etan.  
Haurrak: Arrasate - Urki, Atxabalpe, larunbata 12etan.

**Futbola**

Hirugarren maila: Mondra 5 - Santutxu 0  
Emakumezkoak: Anaitasuna 7 - Mondra 0  
Preferentea: San Andres 1 - La Salle 0  
Ohorezko maila: UDA 1 - Mondra 0  
Lehen mailako jubenilak: San Andres 6 - Vulcano 0  
Bigarren mailako jubenilak: Texas Lasarte 2 - Arrasate 3  
Lehen mailako kadeteak: Aitzgorri 3 - Arrasate 1  
Bigarren mailako kadeteak: Aitzgorri 2 - Arrasate 1

**Rugbya**

Kadeteak: Kakarraldo 23 - Arrasate 3  
Neskak: Gasteiz 24 - Arrasate 7  
**Hurrengo partiduak**  
Seniorrak: Arrasate - Elorrio, Garagartzan, igandean 12etan.  
Jubenilak: Arrasate - Hernani, Garagartzan, larunbatean 4.30etan;  
Kadeteak: Arrasate - Elorrio, Garagartzan, igandean 11etan.



**ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDAK**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**

 **77 05 65**


# Mediatekak, hezkuntza berriztatzaile

Gure artean, gaur egun, inork ez luke ukatuko eskolaren zeregin haundiena ume bakoitzari dagokion irakaskuntza aproposa eskaintzea litzatekeenik; bere izaera errespetatuz, garapen egokia izan dezan, modu bizi eta eraginkor batean bere burua jantzi eta bere kasa pentsa dezan.

Azken finean gura dena zera dá: ikaslea bere ikaskuntzaren egile izan dadila, hots, bakarrik ikasten dakiena, hori izango baita bizi guztirako balio izango diona.

Baina printzipio hau ez da benetan egia bihurtuko eskolako lana gelako lau ormetara, testu liburura eta irakaslearen borondate onera mugatuz gero.

Ezinbestekoa da eskoletan ganorezko Mediateka edo Agiri eta Baliabide Zentruak edukitzea, ikasle eta irakasleentzat informazio iturri desberdinak (baita teknologia



berriak ere) dituztenak eta arduradun kualifikatuaren gidaritzapean.

Gelako lanak inportantzia galdu beharko du mediatekan egingo denari lekua uzteko. Baloreak landuaz ezagutza eraikitzeke beharrezko diren trebetasunak eta tresnak lortu

ahal izateko:

- Irakurle onak: edozein kodigotan irakurriko dutenak.
- Ikertzaileak: testu ugari eta desberdinak erabili, baliogarriak ez direnak baztertu, baliogarriak hautatu, ulertu eta testu berriak egiteko gauza direnak.

• Informazioaren teknologian trebeak: ohizkoetan eta berrietan (datu ondare informatikoa, telematika, etabar).

**ANA ISABEL UGALDE**  
**HEZIBIDE-KO KOORDINATZAILE**  
**PEDAGOGIKOA ETA MEDIATEKA**  
**PROIEKTUAREN ARDURADUNA**



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

# Musker berdea (*Lacerta Viridis*)

Musker berdea odol hotzeko animalia da, narrastien familiakoa, tamaina ertainekoa, gogorra, nahiko buru handikoa, hanka gogorrak eta bustan luzekoa. Sexu bietakoek, berde argitik ilunera kolorekoa dute paparra. Arrek mota beltzak izaten dituzte normalki, matrail-hezurra eta lepoa (beheko alde) sarritan urdin ditziratsukoa, sabela berde-zurixka edo horia. Luzera 35 zm ingurukoa izaten du, eta oso gutxitan 40 zm baino gehiago. Errekatxo eta putzuetako ertz oso estalietan aurki daitezke, bide bazterretako sasi-tzetan, eta baita urtegiatan ere, landareria handiko harriarteetan. Eguraldi onarekin, udaberrian, martxoan edo apirilean irten egiten du bere gordelekutik, lehenengo arrak eta atzetik emeak, eta kumeak azkenik. Arrak eta emeak, parekatzeko denboraldia bai-



Angel Encinas

no lehen osatzen dute bikotea eta leku berberak erabiltzen dituzte eguzkia hartzeko. Eguraldiaren arabera, arrautza bat edo bi jartzen dituzte; jarrialdi bakoitzak hogeit bat arrautza izaten ditu eta 80-85 egunetara irtetzen dute zulo-tik.


Musker berdeak goizean goiz irtetzen du, eguzkitan 30ºak hartu arte egoteko, eta orduan 30-40 metro inguruko lurraldean zehar ibiltzen da, janaria edo bikotea bilatzen.

Muskar ar helduen artean izaten diren borrokak erritual gisa hasten dira eta haginka-

da gogor eta arriskutsuekin amaitu ohi dira. Ikusiak ditut era honetako borrokak, eta beldurgarria da zelako indarrez eta krudeltasunez eraso egiten duten ikusteak.

Muskerren etsaiak kirixkioak eta hainbat hegazti mota dira. Ibernazio edo negualdiak sei hilabete irauten ditu, irailean hasita. Bere burua arriskuan edo gizakiak molestaturik ikusten duenean berehala izkututzen da sasi-tzetan. Ohar garrantzitsu bat! Kontuz bere haginkadarekin, haginak barrukadara baititu eta ez du berehalakoan jaregiten. Bere janaria, intsektu handi samarrak izaten dira, matxinsaltoak, kirkilak, barraskiloak, libelulak eta baita hegaztien arrautzak ere. Gizakiek jateko hiltzen dituzte. Hil gabe ezin geratu!

ANGEL ENCINAS



## GRONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoa
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76


ARRASATE

# 1855: Haratuzteetako bandoa

**Jose Maria Mendiak**, 1855ean Arrasateko alkate zenak, urte horretako otsailaren 7an, Haratuzteetarako eman zuen Bandoa dakargu aste honetan, sasoiari sasoikoa. Originala, jakina, gazteleraz zegoen, eta hona hemen, euskaraz, zer zioen:

“Datozen Haratuzte egunetan ohizkoak diren dibertsioak herri honetako bizilagunen Kultura eta zibilizazioaren kontra joan gabe ospa daitezten, udal agintarietara ordena publikoa kalteztzen dutenen eta bihurrien kontrako neurriak hartu beharrik izan ez dezaten, ondorengo arauok betetzea agintzen dut:

- 1.- Haratuzteetako hiru egunetan, kalean moztarorekin eta karetarekin ilunkarara arte ibiltzeko baimena ematen da.
- 2.- Erligioaren ministroen jantziak erabiltzea debekatuta dago.
- 3.- Moztarrotutako inork ezin izango du armarik aldean izan.
- 4.- Intsultu eta mehatxuak debekatuta daude, moztarrotuta zein moztarrotu barik egon. Gizalege eta moral publikoaren kontrako hitzak eta ekintzak ere debekatuta daude.



5.- Inork ere ezin izango dio, moztarrotuta egon edo ez, beste inori kareta kendu, ez eta kentzera behartu ere, gehiegikeriaren bat egin izan arren, jabeari kalte eginez; baina agintarien aurrera eraman ahal izango du, moztarrotuak egindako akatsa ikusirik,

•••••

**“Debekatuta dago ostatu eta tabernetan kareta jantzita izatea”**

siz, behar den erabakia hartu dezan.

6.- Debekatuta dago ostatu eta tabernetan kareta jantzita izatea, jabeen erantzukizunpean.

7.- Edozein tresna erabiltz jantziak zikindu edo apurtzen dituztenei, behar den zigorra ezarriko die autoritateak.

8.- Aurreko arauok betearazatearen ardura udalategiko Aguzazilek izango dute.

Arrasaten, 1855eko otsailak 7

## SUTONDOAN

### ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (II) (Gertatua)

Beste bizitzan, berriz, Bittorianatxo, hiru urte inguruko atso kaxkarin pattarzaletxoa, txakurra kukulumixoa jarrita baino askoz handiagoa ez zena, eta sorgina ote zen beragaitik maiz samar esaten zena.

Egun batean, Anjelenean auzoko jostuak zirela, horiek ikusi omen zuten orratz-ontzi baten xomorroak eguzkitara aterata, (zatz-malo, matxingorringo, amandre gona gorri eta abar) eurakin hizketan, irripartxoak eta barre algarazoroak ere egiten. Jostun gaixoak bildu ziren orduan eta harri eta horma sinistru zuten atso xastar hura, esan eta egin, sorgina zela.

Jostun haien artean zegoen Zakon-Aunaren alaba eta Anjeleneko neskamea zen Loretxo polit eta erakarkorra ere; ez nagusia eta ez otseina ere bata bestea barik bizi ezin zirelako, hau, harek aginduta, ezkondu aurretik puntada piska bat ikas zezan zebilen.

Sorgina, sorgin denarentzako gauzarik mingarri eta desondragarriena eta txoritik irtenda jartzen dituen, munduan sorginik ez dela bere belarriz entzutea omen da.

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71

Erdiko kale. 79 19 37

**LEA**

Ferrerias. 79 87 62

**ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA**

**BAZAR TOKI ON**

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



anta Ageda eguna pasa da, baina oraindik kantuan ibilitako askok oroimena eta datorren urtekorako gogo bizirik izango dute. 1960ko Santa Ageda bezperakoa da erretratu hau, ageri denez.

Argazkian, zutik ezkerretik hasita, **Jose Antonio Gonzalez, Juan Bautista Usandizaga, Rafa Fernandez, Jose Ramon "Txori", Juanito Kurri, Julio Iriondo, Mallabi, Pedro Laso** (argazkia egin zuena).

Makurtuta, ezkerretik, **Jose Antonio Agirre**

**"Maño", Jesus Barrutia, Eduardo Letona, Luis Mari Maidagan, Elias Ugalde eta Bixente Etxebarria.**

Argazkiaren atzekaldean ageri den etxea Muxibar taberna da, indarrak berritzeko mokadu bat egiten zuten lekua. Irteera egun osorako izaten zen, eta koru bakarra zenez, goizean goiz irteten zuten, On Jose Luis Iñarrak San Juan Bataiatzailearen parrokiaren meza eman eta gero.

Gastuak gutxitzeko, batutako generoarekin, arrautza

eta antzekoekin, egiten zen bazkaria eta gainerakoa, generoa eta dirua, Ospitaleko Madre Superiorari ematen zitzaion. Afaria normalean **Obduli Ansoategi** sukaldariak prestatzen zuen Udalpe elkartearen.

Batutakoak Ospitalera eramatea, Santa Agenda egunaren hurrengo domekan egiten zen. Ez ei zen falta izaten kanturik orduan ere, eta zela ez, Ospitaleko monjek gertatutako lunch ederra ere ez.

J

Zatoz eta bilatu stock-eko Ford autoetan puntu gorria dutenak; eskaintza bereziak dituzte.

**250 auto.**



**M MUGARRI**

**Bilatu zure puntua!**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

## Etxebizitzak

- **Gela bat alokatzen da bi oherekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai Uribarri Etorbidean.** Tfnoa: 79 85 24.
- **Arrasaten edo inguruetan eskailarak gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut.** Dei egin 77 05 65 tfnora.
- **Garajia salgahi, itxitxa.** Atxabaltan, Errekabarrenen. Tfnoa: 79 58 98.

## Lana

- **Espierientziadun neska prest dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Etxetik lan eginez dirua irabazi nahi duzu?** Bidali sobre bat zure helbidearekin eta zigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.550 Aretxabaleta.
- **Espierientziadun andra gertu dago umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- **Latin eta griegoko klaseak emango nituzke.** Tfnoa: 79 50 88. Garbiñe.
- **Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 39 49.

- **Espierientziadun neska prest** etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92.

- **Teniseko klaseak ematen dira.** Adin eta maila guztiak. Sei laguneko taldea gehienez. Espierientzia eta tituloduna. Tfnoa: 79 52 80.

- **Espierientziadun mutilak pertsona nagusiak zainduko lituzke.** Atarteak garbitzeko ere prest nago. Tfnoa: 79 50 30. Jose Miguel.

- **Andra euskalduna etxeko lanak egin** eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

- **Emakume euskalduna arratsalde** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 77 05 90.

- **Alemanez mintzatu nahi duzu?** Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratu. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.

- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.

## Salerosketak

- **Amstrad PC 1512 ordenadorea salgai,** CGA monitore monokromoa, 512 Kb memoria Ram, disketera 5 1/4"takoa. Oso merke! Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 71 26.
- **Salgai:** Garbitasuna egiteko Vaporetto bat, Ormako erloju bat, Wasili jarlekua, zutikako lanpara eta kuadro batzuk. Aprobetxatu aukera! Tfnoa: 79 64 50. Milagro.

- **Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.**

- **Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.**

- **PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak).** Prezioa: 9.000 PTA.

- **"Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina.** Guzti hauetarako dei egin 77 08 15 tfnora. Kepa.

- **Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai.** Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparion doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.

- **Yamaha 250 c.c 88. urtekoa eta Kawasaki 125 c.c 87. urteko motorrak salgi.** Dei egin 71 42 22 tfnora. Jon.

- **Moto Guzzi California Custom salgai.** 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.

## Denetarik

- **Okoretegi ondoko kabinan kartera bat aurkitu dut,** bertan dirua eta giltza piloa. Galdutuenak deitu egin dezala 79 63 01 tfnora. Edo laneko telefono honetara: 79 12 62.

- **Leioara egunero joaten naiz kotxez.** Zuk ere bidai bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzeko kotxea baduzu hobe. Dei egin asteburu eguerdian 79 50 20 tfnora. Ima.

- **Erloju bat topatu nuen Monterron aurreko zelaian,** zurea bada, Maala kaleko "Arrabala" dendatik pasa edo dei egin gaez 79 80 25 tfnora.

# Aste Gazte

## Bekak

- 3. adinari buruzko ikerketa lanak egiteko dirulaguntzak. Norbanakoek nahiz lan taldeek eska ditzakete. Epea: martxoak 31.
- Atzerriko Unibertsitate eta Ikerketa Zentroetan ikasketak zabaltzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak. Gaiak: Ekonomia Orokorra eta Komunitate Europearren Zuzenbidea. Epea: apirilak 15.

## Dirulaguntzak

- 93ko dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 30erarte zabalik dago. Iazko memoria eta aurtengo egitasmoa aurkeztu beharra dago.

## Gazte txartela

- 91-92ko Gazte Txartelaren baliotasun-epea apirilaren 30era arte luzatu da. Maiatzetik aurrera kanpaina berria hastea espero dugu.

## Sexualitate tailerrak

- Gazte eta begiraleei zuzendutakoak, martxoan hasiko dira, ordutegi ezberdinak. Izena lehen bait lehen eman ezazue. Arrasateko HIES Ekimenak eta Gazte Zerbitzuak antolatuta.

## Mendi-irteera

- Otsailaren 28an Anbotoko Kresteria. Izenemateak: astearte, asteazken eta ostegunean, 7.30etatik 8.30etara, Besaideren egoitzan. 200 PTA.

**"... eta amak, bere aurrean eserita, bera gizona bailitzan eta ez 13 urteko mutila bezala begiratzen zion".**

**A. MORAVIA,  
"AGOSTINO"**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

# ZER NAHIAGO?

## Nerea Garai

### Erguingo Irizar farmaziakoa



- **Botika asko hartzen duzu?** Ez, zorionez ez.
- **Medizina naturista ala tradizionala?** Bien alde nago, biak erabiltzen ditut.
- **Zenbat aldiz garbitzen dituzu hortzak egunean?** Hiru aldiz.
- **Hizkuntzak ikasteko ona zara?** Puf! Desastre bat naiz, oso txarra.
- **Eguraldiaz ulertzen duzu?** Ez, besteek esaten dutena sinisten dut baina nik ez dut ulertzen.
- **Katarroa kentzeko, zer?** Erremedio asko daude. Nik Paracetamol hartzen dut.
- **Gaixotasunik txarrena?** Ez dakit, minbizia.
- **Nortzuk erosten dute botika gehien?** Pertsona nagusiak batez ere.
- **Zeri diozu beldurra?** Ez dakit, beharbada sufrimentuari.
- **Zer ikasketa egin duzu?** BBBko bigarren kurtsorarte eta gero ikastaro asko egin ditut.
- **Desio bat?** Aberatsa izatea.
- **Maiteminduta zaude?** Bai.
- **Medikuengan sinisten duzu?** Bai, baina batzuetan bakarrik.
- **Gizarteko zein arazok kezkatzen zaitu gehien?** Denek: langabezia... Egunkarietan hainbat arazo agertzen dira.
- **Txikitako lagun asko?** Bai, baina baditut gero egindakoak ere.
- **Urari ala suari diozu beldur handiagoa?** Urari.
- **Jatorduetan ura ala ardoa?** Okasio berezietan ardoa, baina egunero ura.
- **Denbora asko pasatzen duzu zeure burua txukuntzen?** Ez, bistan dago, ezta?
- **Botiken usaina gustatzen?** Ez, baina ohitu egiten zara.

## BERTSOAK

### APOTZAGARA

1  
Leintz bertsotan Apotzagara dator urtero bezala afari on bat egiteko ez da aukera motela bildotsa jan ta bertsoak entzun edo kantatu bestela lekurik barik ez garatzeko erosi azkar txartela

2  
Berriro ere hementxe gatoz aurtengoa ospatzera bertso saio bat izango duzu festan partaide bazera Auzo Etxeko ganbaran eta giroz betiko antzera bertso giroan murgildu asmoz, gazte ta heldu batera.

### LEINTZ BERTSOTAN



**H A U R T X O A**  
Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**beinke**

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
77 05 65

**“EDERTU”  
ileapaindegia**  
  
San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

**FAGOR**

**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**  
GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

## Javier Marcos

### TU-Lankide aldizkariaren zuzendari

Arrasateko Kooperatiben arteko komunikazio tresna da TU Lankide aldizkaria. Jabier zuzendaria da eta urteetan zehar dinamikotasuna eta erakargarritasuna lortzeko eman diren eta eman nahi diren pausuak zehazten dizkigu.

— Ezagutzen da nolakoa izan zen aldizkari honen hasiera?

— Bai, 1960. urteko irailean sortu zen eta hasieran multikopistaz ateratako orri bat zen bakarrik. Nolabait, Kooperatibaren dotrina zabaltzea zen orri horren helburua. Denborarekin, aldaketa asko izan dira eta behar bada nabarmenena 1970. urtean eman zen, maketazio lana garatzen hasi zirelako, inprentara bidaltzen, eta Juanito Leibarren zuzendaritzapean, orrialde kopurua ere gehitu egin zelako.

— Zeintzuk ziren orduan eta zeintzuk dira gaur egun TU Lankideren helburuak?

— Hasierako helburuak aztertzeke testu-gurua ere kontutan hartu behar da: gerraostea pasatuta zegoen eta kooperatibak finkatzen hasita zeuden. Nire ustez, Jose Mari Arizmendiarririk beharrezkotzat jo zuen



Ulgor, Arrasate, Caja Laboral eta beste kooperatiben arteko komunikazio bide bat ezartzea, komunikazio bitarteko bat eukitzea. Eta horrela sortu zen TU—Lankide, "Cooperación" izenarekin. Eta momentu honetako helburuetan behar bada mantendu egiten da kooperatiben dotrina hori zabaltzea. Gaur egun, TU—Lankide kooperatiben arteko bitartekoa den neurrian, fisiofrikoki kooperatiba zabaltzea da bere helburua. Baina horretaz gain, kooperatibetan gertatzen denaren berri ematea ere izan behar du bere helburua eta ekintza puntualak ezagutzera ematea ere bai. Alde batetik, kooperatibetan lan egiten duten langile guztiei

zuzentzen zaielako. Baina banatzeko orduan kooperatibetan, erakundeetan eta baita atzerriko beste toki batzutarara ere bai.

— TU—Lankideko testuak elaboratzeko, ze prozesu jarraitzen da?

— Erredakzio Kontseiluan erabakitzen dira aldizkariako gaiak eta egin behar diren aldaketak ere bileran horretan aztertzen dira. Hori egin eta gero, komisiokan gai bakoitza nola joratu erabakitzen da eta ondoren, nik neuk banatzen ditut lanak: gaia kontutan hartuz nori eskatu kolaborazioa...

— Ze estilotan idazten dira?

— Beno, arazo txiki bat dugu. Gure kolaboratzaileak kooperatibetako direktiboak izaten dira gehienetan eta normalean txostenak idazten dituzte eta. Horregatik, askotan oso zaila izaten da mezua transmititzea, ulergaitzak direlako. Baina denborarekin lehenbiziko zati horri konponbidea bilatu nahi genioke, erakarriagoa egiteko. Horrez gain, gehigarri bat ateratzen ari gara. MCCari buruzko gehigarria da; bertan, bere berrantolaketan egongo diren aldaketak zehaztuko dira.

### Ludoteka auzoetan, lehenengo Santamainara

AEDko Ludoteka larunbatean Santamaina auzo-aramango dute eta bertako neska-mutilek, martxoaren 13a arte larunbatero, ludotekako jostailuekin jolasteko aukera izango dute. Ludoteka-zerbitzua Santamainan goizeko 10.30etatik eguerdiko 1.30ak arte izango da zabalik, auzoko Gazteen lokalean. Hilabeteko epean Santamainan izango da Ludoteka, baina ondorengo hilabeteetan gainotzeko auzotara eramateko asmoa dute arduradunek.

Bestalde, aipagarria da pasa berri den astean, asteazkenean hasi eta gaur arte, karnabalen gertutasuna aprobetxatuz, herriko ikastetxe guztietako 4. mailako ikasle taldeek Seberoko Ludoteka goizetan erabiltzeko aukera izan dutela. Egun hauetako saio berezien helburu garrantzitsuenak, karnabalen ohitura zaharrak ezagutu eta bultzatzea, ihauterietako kontsumismo eta komertzialtasunaren berri izan eta material merketa eta atzera utzitako aprobetxatzen erakustea.

Ludotekaren erabilera normalari dagokionez, aipagarriena erabiltzaileen kopurua da: 4 astetan 140 bazkide, egunero 5etatik 8etara Ludotekan jolasean.

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**IBARRA  
Garajea S.L.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



## ASTRONOMIA

Ez da erraza izaten Lurra, planeten eta izarren tamainuak imajinatzea.


Saia gaitezen gaur, gure eguzki sistemaren tamainua adierazten, adibide grafiko baten bidez.

Dakigunez eguzki sistema, eguzkia eta bere inguruan biraka dabilzan planetek osotuta dago batipat. (Badaude planeten sateliteak ere; Lurra-  
ren Ilargia, Marteren Deimos eta Fobos, eta asteroideak eta kometak).

Suposa dezagun proportzionalki, Eguzkia futbol baloi gorri bat dela eta futbol zelai baten erdian dagoela. Merkurio planetak ilar baten tamainua izango luke eta bere orbitaren planeta, kanikatxo bat bezala ikusiko genuke eta bere orbitaren diametroa 70 m<sup>2</sup>takoa izango litzateke. Gure Lurra ere kanikatxo bat bezala ikusiko genuke, bere orbitaren diametroa 100 m<sup>2</sup>takoa izanik (partiduen ikusleen artean ibiliz).

Hurrengoan jarraituko dugu.

ERNEST BORN



Santos eta Bixenterentzat, nahiz eta aurrez lan handia egin, sardina erretzen ikustea ez da tristea.

# Sardina ere prest dago Haratuzteetarako

**Haratuzteei** amaiera emanez erretzen den sardinaren egileak Santos Zeziaga eta Bixente Heriz izan dira azken lau urtetan. Edozein modutan, Santos eta Bixente eta Haratuzteetako sardinaren harremanak lau urte baino gehiago ditu, sardina erretzeko ohitura berria sortu zen une berean hasi baitzen. "Orain zortzi urte, Mondragoen sardina erretzen ekin zenean hasi ginen gu. SUDC-en geundela Zabala eta Uribealago hasi ziren sardina egiten, urte batzuetan haien inguruan ibili eta utzi zutenerako ikasita geneukan". Orain arte lana erdizka banatu dute

Bixente eta Santosek, baina aurten Bixentek, laneko loturak direla eta ez direla, arazoak izan ditu sardinari denbora larregi eskaintzeko eta Santosek bakarrik ibili behar izan da zenbait unetan.

Santos eta Bixenteren lana urtarrilean hasi zen eta astean bi edo hiru ordu lan eginez, urtero bezala Haratuzteetako azken egunerako sardina bukatuko dute, guztira 40ren bat ordu lan egin eta gero. Azken urteetan bezala, aurten sardina egurrezkoa izango da; baina hasierakoa burdinezkoa zen, alde batetik eskamak jarri ezina eta besteetik astuna bihurtzeak eragin

zuen urtero egurrezkoa egitea. Santos Zeziaga kooperatibetan lan egindako jubilatua da, Bixente, berriz, oraindik lanean ari dena. Bataren zein bestearen ogibideak ez du zerikusirik sardinagintzarekin, baina hala ere ez diote meritu handirik ikusten. "Kartoia, artaziak, kola, pintura eta serra manejatzea eta pazientzia apur bat besterik ez da behar".

Eurentzat gehiegi ez izanda ere, 40 lanordu 40 lanordu dira, astearte gauean suak desegingo dituenak. "Penarik bat ere ez, hileta bera da Haratuzteetako politena eta, musika, pausu uniforme..."



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**Begoña**

lurrindegia  
Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Anzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**Hilbera**  
kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

**FELIPE**  
**MADINA**


**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

· ESAERA ZAHARRA ·

*"Bildu negarrez,  
gastatzeko farrez"*

· JEROGLIFIKOA ·



Egonezina

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
11					12		
13				14			15
16			17				
18					19		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Gizalege. 9. Orekariketak egiten dituen. 10. Zaldibar Futbito Txapelketako ekipoa. 11. Txapela. 13. Oinaze. 14. Salgaien legezko prezioa. 16. Eusko Trenbideak. 17. Hegazi-gorotza. 18. Balio-gabe. 19. (Ald.) Zehatz.

**Bertikalak** 1. Alaitasun. 2. Begitandu. 3. Nola. 4. (Ald.) Bukatu aditzaren infinitiboa. 5. Gizonak hazi ez duen animalia. 6. Iridioa. 7. Kargua edo lana uztearen egintza. 8. Bizkaiko udala. 12. Motibo. 15. Andorrako ibilgailuetan. 17. Iso.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Belarriko min izugarriaz egongo zara aste osoan zehar.

**Taurus** Auto berria probatzeko egunean istripu txiki bat izango duzu.

**Gemini** Arazoren batzu dituzula eta, oso urduri ibiliko zara.

**Cancer** Asteko egunik onena ostirala izango duzu. Aprobetxatu!

**Leo** Otsailaren hamalauan mutilari egin zenion oparia ez zitzaion batere gustatu.

**Virgo** Maiteminduta zaudela eta sekula baino aztoratua goa ikusten zaitut.

**Libra** Lur jota zauden arren, altxa animo hori eta egon garai hobeen esperoan.

**Scorpio** Ez ezazu gehiegi abestu, euria egingo du eta.


**Sagitarius** Ikaragarrizko izardi usaia daukazu. Xaboa zertarako den ez dakizu, ala?

**Capricorn** Haratuzteak direla eta, zorrakeria "hori" egiteko aukera ezin hobea...

**Aquarius** Ametsgaiztoak dituzu, baina lasai, ametsak besterik ez dira.

**Piscis** Goiko pisuko mutilarekin "moskeatuta" ibiliko zara.

93ko ezkongaiak



BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK  
93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

SENARGAIAREN JANTZIA  
ANDREGAIAREN JANTZIA  
ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU  
EZTAI EGUNERAKO CAVA  
SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI  
EROSKETA TXARTELA  
ARGAZKI ERREPORTAIA  
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA  
EROSKETA TXARTELA

ETXEAK

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)  
BAYON (Donostia)  
KAREAGA (Eibar)  
CODORNIU  
IKER (Mondragón)  
SOFAS LANDETA (Azpeitia)  
FOTOKAI (Donostia)  
EROSKI BIDAIAK (Donostia)  
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOZKETA: OTSAILAREN 26an

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA \_\_\_\_\_ (izen deiturak)  
 \_\_\_\_\_ (helbidea)  
 \_\_\_\_\_ (herria) \_\_\_\_\_ (telefonoa)

ANDREGAIA \_\_\_\_\_ (izen deiturak)  
 \_\_\_\_\_ (helbidea)  
 \_\_\_\_\_ (herria) \_\_\_\_\_ (telefonoa)


Ezkontza eguna (gutxi gora behera) \_\_\_\_\_

HERRI Irratia



Radio POPULAR  
GIPUZKOA

• PATXI GOIKOLEAREN GOMENDIOA •




Serio egoteari utzi eta "katxondeoko gomendioa" eman nahi izan digu Patxi. Egunkarian irakurri duen berri batek atentzia deitu dio eta horixe gomendatu nahi die etxean txakurra duten mondragoetareiri. Gazte talde batek txakurrentzako dodotisak, "perrotis" izenekoak, asmatu ditu, "horrela, txakurra ugazaba, zerari noiz jaregingo eteutzon ibili biherrien, ardurie kendu eta einddekuen erantzi, bota eta kitto". Kaleak zati bat garbiago egongo lirateke.

• PROGRAMAZIOA •



- 21 Igandea**
  - 9.30 Monterock
  - 10.00 Mondragol
- 22 Astelehena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Mondragol
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30,9 Berriak
  - 9.30 Mondra Sport
  - 10.00 Asteko Zinea: Kareletik
- 23 Asteartea**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Mondra Sport
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8,00 Karnabal Gaua. Zuzeneko saioa
  - 9.00 Play-Back jaialdia
- 24 Asteazkena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 ATB Pub
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30,9 Berriak
  - 9.30 Pareak Jokoan: Ikastolen inguruan.
  - 10.00 Asteko Zinea: Kareletik
- 25 Osteguna**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Pareak Jokuan
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30,9 Berriak
  - 9.30 ATBketan
  - 10.00 Asteko Zinea: Kareletik
- 26 Ostirala**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 ATBketan
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30,9 Berriak
  - 9.30 Monterock
  - 10.00 Asteko Zinea: Kareletik

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

**GURUTZEGRAMA**  
 Horizontalek 1. Gizabide, 9. Ore-karta, 10. Zulus, 11. Adabaki, 13. Min, 14. Tasa, 16. ET, 17. Ziritn, 18. Nulo, 19. Iod.  
**Bertikalak** 1. Gozamen, 2. Iruditu, 3. Zelan, 4. Akub, 5. Basati, 6. Ir, 7. Dimistio, 8. Ea, 12. Kant, 15. And, 17. Zor.  
 Ipurterre.


**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
**77 05 65**

**PUB HAIZEA**  
  
 arrasate

• **ARTEA** •  
 Eskulanak eta lientzoak  
**ENMARKAZIOAK**  
 Laminak, Izpiluak,  
 Margoak  
 Ferrerías, 11 Tfhoa: 77 10 95  
 ARRASATE



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuatitzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm<sup>3</sup>-ko.

# POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak  
Opel Astra berriaren potentzia  
egiaztatzera gonbidatzen zaitu.*

*Beti zurea,  
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuatitzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gonbidatua zaude.

**OPEL**

**BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.\***

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

\* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearetarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziazio eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g: Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

## TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.